

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Irañetan eta Iturmendin ezik, udal hauteskundeetara 25 zerrenda aurkeztu dira / 7

Nafarroako Gimnasia Erritmikako Taldekako Txapelketa jokatu da bihar, larunbatean, Altsasun / 17

Arruazuk hartuko du Mank-ek antolatutako Sakanako Herri Kirol Eguna igandean, 11:30ean / 18

'Drag-E. Uraren bila' ikuskizuna izanen da bihar, Etxarri Aranazko kultur etxean, 17:30ean / 23





"Txistua herriaren instrumentua da"

KRUZ MARI MARTINEZ LARREA TXISTULARIA

Kruz Mari Martinez Larrea musikariak mende erdia egin du Altsasuko udal txistulari bezala. 50 urtez Altsasuko festa garrantzitsuenetan fandango eta arin-arin doinuak zabaldu ditu.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko festa garrantzitsuenetako egutegian presente daude txistulariak. Korporazioaren eta erromerien ezinbesteko elementua dira. Eta azken 50 urteetan horietan guztietan Kruz Mari Martinez Larrea egon da. Urte hauek "oso atseginak" izan direla esan du txistulariak. Bizipen polit eta positiboz beterik egon dira eta "harro" dago mendi erdian "jarraian" udal txistulari izateagatik eta "nire harea-pikorra" eskaintzeagatik.

Nola eta noiz hasi zinen txistulari bezala?

Duela 50 urte izan zen. Nik orduan 13 urte nituen eta oraindik praka motzak janzten nituen. Garai horretan mutilek praka motzak janzten genituen eta 14 urteekin edo hasten zinen luzeak janzten. Aurreko banda desegin zen eta bakarrik bi kide gelditzen ziren: Pedro Rubio eta Jose Urizar atabalaria. Orduan, Pedro Rubiok udal txistulari bandarekin jarraitu zuen eta gazteak bilatu zituen. Txistua ikasteko eta banda jotzeko eskaera egin zigun. Eta horrela izan zen hasiera. 1968. urtea izango zen. Gauzatxo batzuk, kalejiraren bat, entseaten egon ginen eta entsegu gutxi horiekin 1969ko abuztuaren 14an Jesus Azurmendik meza kantatu behar zuenez lehenengo korporazioa egin genuen. Bere etxetik elizara joan ginen eta han artzapezpikua etorri zen eta elizaren estalpean dantzari taldeak zeuden itxoitzen. Hor hasi zen udalaren irteeren egutegia betetzearen konpromisoa. Lehen askoz irteera gehiago egiten genituen, korporazio gehiago zeuden, Kristora joaten zen, Kaputxinoetara, mezetara, udalarekin korporazio zibilak ere... Autobiodea mustu zenean, esaterako. Hortaz, baziren herrian hainbat ekimen garrantzitsu eta txistulariei deitzen ziguten. Beraz, konprometitu ginen udal txistulariak izatera.

Non ikasi zenuen?

Pedro Rubioren noizean behin entseguren bat egiten genuen. Udaletxearen beheko solairuan

egiten genituen. Musika gela bat zegoen eta bertan bandak, txistulariek eta beste hainbat musikaririk entseaten zuten. Entseatzeko gela amankomuna zen. Lehenengo kalejira eta fandangoak han entseatu genituen. Formazioa autodidakta izan zen. Gogoan dut garai horretan igandero plazan musika zegoela eta bandaren atsedendietan txistulariok jotzen genuela 15 edo 20 minutuz. Ez zuen asko iraun. Musika banda desegin zen, aurretik guk dagoeneko ez genuen jotzen. Baina sei edo zazpi urtez aritu ginen. Txistulari banda horren lehenengo urteak.

Zergatik txistua? Aurretik interesa zenukan?

Musika gustatzen zitzaidan. Orokorrean. Enrique Zelaiarekin solfeo pixka bat ikasi nuen. Zelaiak solfeo eta akordeoi klaseak ematen zituen. Akordeoia jotzera ez nintzen iritsi, baina solfeoa bai. Justo Elokietarekin ere egon nintzen musika ikasten hilabete batzuk. Musika bandaren zuzendaria izan zen. Kantatzen hasi nintzen ere. Altsasuko kantu txapelketetan parte hartzen nuen. Musikarekiko lotura bazegoen eta txistua iruditzen zitzaidan instrumentu tradizionala, polita eta herrikoia, eta horregatik gustatu zitzaidan.

Beraz, txistularia ez ezik kantuan ere aritu zinen Altsasan.

Urtero Bengoetxea zinemetan Altsasuko kantu festibala antolatzen zen. Normalean ikasle zaharrenek antolatzen zuten eta gogoan dut parte hartu nuela hainbat urtetan. Garai horretan hasi nintzen euskaraz abesten. 1971. urtean, udal txistulari bezala hasi eta bi edo hiru urtera, Iruñeko Gaiarre antzokian aritu nintzen Herri kantak eta Nafarroako jotak txapelketa batean eta lehenengo saria irabazi nuen. Euskarazko kanten lehiaketa bat zen eta herri kantak deitzen zioten. Benito Lertxundiren bi abesti kantatu nituen. Garai horretan ere gitarra jotzen hasi nintzen. Beti musika lagun izan dut. Ez dok hamahiruren garaia zen, eta gu gazte bezala erreferente ge-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



1969. urtean izan zen Kruz Mari Martinez Larrearen udal bandarekin lehenengo irteera. UTZITAKO

nituen. Abesti guztiak ikasten genituen eta oso garai bizia izan zen. Diktadura bete betean zegoen.

FESTEN ARIMA

Zeintzuk dira udal txistulari bat egon behar den festa handiak?

Urtea Santa Agedarekin hasten gara, baina kintoekin egiten den festa bat da. Eta batik bat Altsasuko festa garrantzitsuenak San Pedro da. Altsasuar bati galdetzen badiozu zuretako zein da herriko festa hobereana gehienek San Pedro dela esango dute. Gero ni oso sanjuaneroa naiz. Sanjuanak asko gustatzen zaizkit. Gero daudefestak, feriak, Olentzero, Maia-tzeko gurutzeta ere oso kutuna da txistulariendako, Erkuđenera eta Bargagaingo gurutzera joan behar gara ere...

Nolakoak izaten dira korporazio horiek?

Festak animatzen ditugu. Udal txistulariek herri izaera dugu. Herriari eskaintzen gara eta ez ditugu kontzertuak egiten. Gure musika festa eta erromeria haue- tan dagoen jendeari eskainita dago. Dantza egin eta disfruta dezaten. Burundar txistulariak taldea dago ere, entseguak egiten dituzte eta kontzertuak egiten dituzte. Baina ez da gure kasua. Gu udal txistulariak gara eta

herri festa da gurea. Korporazioak egiten ditugu.

Eta zer sentitzen da festa guzti horietan egotean?

Festaren alde garrantzitsu bat sentitzen zara. Nolabait jendea motibatzen duen pertsona zara. Inguruko jendea ongi pasatzen posible egiten duzu. Festa batzuetan eta nerabezaroan hasierako garai horretan guretako lotura bat zen ongi pasatu nahi genuelako ere. Baina beste alde batetik oso asebetetze handia zen zu jotzen ari zinenarekin jendea ongi pasatzen ikustea.

Festaren batean huts egin duzu?

Urte batean San Pedro egunean huts egin nuen. 40 urte inguru nituenean. Londresera joan behar izan nintzen profesioagatik birziklatze ikastaro bat ematera. Bestela, denetan egon naiz.

Festa kontaezinetan egon zara, beraz. Giroa aldatu da?

Herritarren parte hartzea agian jaitsi da. Esaterako, lehen San Pedrotik kalejiran jaisten zen eta jende asko ibiltzen zen. Sanjuanetan berdina gertatzen zen. Gaur egun, agian, jendeak ez du hainbeste parte hartzen. Sanpedrozelaian izan ezik, beste festetan jendeak lehen baino gutxiago parte hartzen du. Are gehiago, San Juan ermitan zor-

tziko batekin hastea kostatzen zaigu ez dagoelako jendea dantzatzeko. Fandangoak eta porrusaldak hotzean jotzen ditugunean ere jendea ez da hain erraz ateratzen. Lehen zerbait normala zen. Jendeak parte hartzen zuen. Beste alde batetik, korporazioak ere gutxi dira orain. Erlijiodun ofizioetara gutxiago joaten da, korporazio batzuk kendu dira: Txunkai festak, trenbide kofradia... Orduan, zentzu horretan udalarekiko konpromisoak gutxiagoa dira orain.

Zer gertatu da?

Ez dakit zer aldatu den, baina egia da herri erantzuna jaitsi dela. Orain San Juan ermitatik herrira ia-ia bakarrik gatoz. Eta jende oso gutxi dator saltoka. Agian festa estimulu gehiago daude eta urtean zehar festa gehiago. Lehen jendeak gogoak zituen San Juan edo San Pedro egunak iristeko. Plazako iganderoko musikak ere mesede egiten zion. Jendeak jota eta porrusalda dantzatzeko zekien. Ohitura hori zegoen, gaur egun ez dagoena. Orain gauez ateratzen da gehiago. Jendeak festan parte hartzen du, horretan agian ez da jaitsi, baina dantzaren aldetik erantzuna jaitsi da. Beste alde batetik, trenbide kofradia pix-

kanaka desagertu zen eta Txunkai festak azken urteetan ere ez dira egin.

Baina festak ez dira txisturik gabe ulertzen.

Nik uste dut ezetz. Behintzat ez ziren ulertu behar. Batzuetan nire kezka hori da. Nik uste txistua festetako parte izan behar dela. Herri eta animazio instrumentu bat da, oso gurea, eta nahiko nuke beti jarraitzea. Horregatik belaunaldi aldaketa egotea eskatzen dut. Horretarako, instituzioetatik mimatu eta zaindu behar dute. Garrantzitsua da.

Zein da udal txistularien erreper- torioa?

"UDAL TXISTULARIEK FESTAK ANIMATZEN DITUGU, HERRITARREK DANTZA EGIN ETA DISFRUTA DEZATEN "

"BANDAN JARRAITUKO DUT ERRELEBOA DAGOELA IKUSI ARTE, AURRERA EGITEA NAHI DUT"

Aldatzen joaten gara. Orokorrean generoak berdina dira: fandangoak edo jotak, arin-arinak eta kalejirak. Eta nola ez Altsasun zortzikoa. Gure dantza tradizio- nala da. Lehen, jakin dudaren arabera, txistua erabiltzen zen dantza loturako ere. Plazan pasodobleak jotzen ziren jendeak dantza lotua egin zezan. Nik ez dut hori ezagutu. Hasi nintzenetik jotak, porrusaldak eta zortzi- koak jo izan ditut. Euskal dantza ere, noski. Dantzari txikiekin jotzen genuen askotan. Txikilandi- etara joaten ginen Tafallara eta ospatzen ziren hainbat herri- taria.

Zein da zure festa gogokoena?

Txistulari bezala San Pedro da kutunean. Baina niri sanjuanak gustatzen zaizkit eta gautxoria naiz, gainera.

Festak txistulari bezala bizi dituzu; beste modu batera.

Hori da. Ez naiz inoiz egon San Pedron bazkaria lagunekin egi- ten.

Baina bere alde onak izango ditu ere, ez?

Dudarik gabe. Festa amaitzen denean beti saiatzen gara afari bat egiten eta festarekin pixka bat jarraitzen. Gazte nintzenean, nerabezaroan, festaren eta di- bertsioaren barruan ez egotea faltan botatzen nuen. Inbidia handia ematen zigun San Pedron bereziki gu jotzen geunden bi- tartean lagunak festan ikustea. Gainera, ia ezin duzu edan... Gero heldutasunean sartu nintzenean beste modu batera ikusi nuen dena.

Gainera, festa batzuetan goizez bakarrik ateratzen zarete.

Bai. Kristora joaten garen eta gero itzultzen garen korporazio batzuk badira. Plazan jotzen dugu eta amaitzen dugu. Maiatzeko gurutzetan horrela da ere. Ferie- tan ere goizez ateratzen gara bakarrik: kalejira egiten dugu eta inauteri batzordekoekin ego- ten gara eta goizerdian amaitzen dugu. San Pedro izan ezik, egun guztia dela, beste guztiek ez dute egun guztia inplikatzeko. Esate- rako, San Juan bezperan txistua jotzen dut eta ermitatik etorrita arropa aldatzen dut, afaria pres- tatzen dut eta gitarra ateratzen dut. Festa egiten dut.

Une berezi asko biziko zenituen.

Momentu asko egon dira. Mo- mentu oso politak. Pedro Rubio hil zenean eta Ramon Delfrade- ren omenez Altsasuko txistularien kontzertu bat egin genuen. Go-

goan dut ere 25 urte egin genituenan festa batekin ospatu genuela. Bizipen asko dira.

ERRELEBOA

Zein egoeratan zaudete orain udal txistulariak?

Orain lau txistulari gaude. Hiru txistu eta atabalari bat. Denek 50 urte baino gehiago ditugu. Musika eskolarekin hitz egin dugu noizbait Santa Agedan eta beste festaren batean gurekin jotzeko ikasleak animatzeko. Beti gonbidatzen ditugu gurekin etortzera eta gurekin parte hartzera. Kanean jotzea da modu hobereana erreleboa emateko. Gu ez gara betiko egongo. Eta garrantzitsua da, esan bezala, instituzioetatik, udaletik, gazteak motibatzea eta behar bada diru pixka batekin sustatzea, eta bakarrik afizioagatik egitea.

Afizioa da zuentzat?

Ez. Guri diru-kopuru bat ematen digute urtean. Betidanik izan dugu. Hasi nintzenen hilabeteen 50 pezeta ordaintzen zigun udalak. Eskupeko txiki bat zen, baina horrek nolabait egutegia betetzera lotzen zaitu. Ez legoke gaizki errelebo hori egoteko eta gazteen parte hartzea sustatzeko eskupeko bat ematea.

50 urte hauetan jende asko pasatu da, ez?

Hiru banda egon dira, nolabait esateko. Lehenengoan jende gaztea hasi ginen. Gogoan dut Miguel Mari Gonzalez, Satur Leoz eta Isabel Rubio gazteak sartu zirela nirekin, eta gero Pedro Rubio, Jose Urizar eta Raimundo Galarza zeuden ere. Banda hori hainbat urtez egon zen eta 1980ko hamarkadaren hasieran Miguel Mari Gonzalezek, Isabel Rubiok eta beste batzuek utzi zuten. Banda berregin zen eta Juan Pablo Urizar, Zapa eta Joaquin Gares sartu ziren. Gares aurretik ere egondakoa zen. Satur Loez eta biok jarraitzen genuen eta bigarren banda bat egin genuen. 2000. hamarkadaren hasieran Satur Leozek, Juan Pablo Urizarrek eta Zapak utzi zuten eta hirugarren aldiz banda berregin genuen. Orduan sartu ziren Margari Iglesias, Jesus Irisarri eta Josetxo Lumberras. Eta momentu horretan gaude. Bandaren hirugarren garai honetan.

Uzteko momentuak izan dituzu?

Momentu baxuak egon dira, delikatuak. Banda bi edo hiru ki-deekin gelditzen da eta nola berregiten dugun pentsatzen hasi behar gara, aurrera jarrai-



Satur Leoz, Kruz Mari Martinez eta Miguel Mari Gonzalez 1970ko hamarkadan. UTZITAKOIA



Altsasuko txistulariak San Pedron.



Udal txistulariak Altsasuko festetan.

tzeko aukera izango dugun... Baina aurrera jarraitzeko gogoagatik ez da izango.

Aurrera jarraituko duzu, beraz.

Nik jarraitu nahi dut bandan erreleboa dagoela ikusi arte. Nik nahi dut banda aurrera jarraitzea. Berdin zait nor dagoen. Agian momentu honetan banda uzten badut, pikutara doa. Agian ez. Baina gustatuko litzaidake aldaketa egotea eta banda nolabait berriz armatzea.

Asko entseatzin duzue?

Gure artean partiturak pasatzen ditugu eta bakoitzak bere kontura entseatzin ditu. Eta gertara berezi baten aurretik gelditzen gara. Baina ez dugu asko entseatzin, egia esan. Noizean behin erreperitorioa berritzen dugu.

50 urte hauetan udalbatza askotatik pasa zara. Nolako izan da ideologia ezberdinetako udalekiko harremana?

Udal guztiekin ongi egon gara. Beti argi utzi nahi izan dugu edozein ideologiaren gainetik gaude. Izan ere, txistua herriari eskaintzen zaio eta horregatik edozein egoera politikoaren gainetik egon behar da. Errespetua egon da beti. Gainera, gauza bitxi bat gertatu zen. Diktaduraren urteetako udalek txistua asko zaintzen zutela iruditzen zitzaizkidan. Interes berezia zegoen txistua mantentzeko. Garai horretan egiten ziren korporazio guztietan txistulariak ateratzen ziren. Musika gela bat geneukan, instrumentuak gordetzeko armairua, jantziak udalarenak ziren, txistua, danbolina eta behar genuena lortzeko ere udalak laguntzen zuen... Oso ongi ikusita zegoen. Harritu didan datu bat da. Gaur egun, txistuarekiko begirunea instituzioen aldetik ez da hain handia. Edozein eskaera egiten dugula zailtasunak jartzen dituzte.

Ez zarete udalarena, herriarena baizik.

Hori da.

Eta zergatik zen garai horretan hain maitatua?

1940tik 1960eko hamarkadetakoa tradizioetik gertatzen. Txistuaren presentzia herrian oso maitatua zen. Garaiko Sanferminetako karteletan txistua agertzen zen. Ez zegoen instrumentuarekiko kargarik.

Jantziare ere hitz egin duzu. Mende erdi honetan aldatu da?

Bi edo hiru ekarpen egin ditugu. San Juan eta San Pedro egunetan zuriz joaten gara eta txaleko alderantzikagarria dugu. Sanjua-

netan berdea eramaten dugu eta San Pedron gorria. Korporazioetan pixka bat eleganteago joaten gara.

Zer esango zenieke gazteei udal txistulari bandan parte hartzeko animatzeko?

Lehenengo gauza musika lagun handia dela. Musikarekin konektatuta egotea bizitzan poztasuna ematen du. Gustatzen zaiuzuna gustatzen zaizula. Musika ikastera animatzen ditut. Edozein instrumentua edo kantua ikasteak on asko ekarriko die. Eta txistulariekin aritzeko gurekin hitz egiteko animatzen ditut. Musika eskolan txistu irakaslea dago eta horren bitartez gurekin jotzera etortzera animatzen ditut. Gogotsu gaude gazteak gurekin jotzera etortzeko.

Guztiz konprometitu behar dira.

Konpromisoa egon behar da. Bestela, hasten bazara hemen bai joko dut baina hemen ez gerta liteke San Pedro eguna iristea eta txistularirik ez egotea. Norbait falta denean ordezko bat bilatzen saiatzen gara.

MUSIKARI LOTUTA

Udal txistulariekin zenbiltzan eta musika talde bat sortzea erabaki zenuen. Zergatik?

Esan bezala, kantuarekin hasi nintzen. Gero txistuarekin eta gitarrarekin hasi nintzen, ia batera. Eta gero 1982an abesbatzaren sortzaileetako bat izan nintzen Gasteizko lagun batekin. Magisteritza berarekin ikasi nuen eta jendea bilatzen banuen abesbatza zuzentzeko prest zegoela esan zidan. Horrela sortu zen abesbatza. 20 urtez egon nintzen. Tartean Trasteando sortu zen. Gitarra jotzen ikasteko eta abesteko elkartzen ginen talde bat ginen. Gure helburua beti gizarte-ekimen bat izatea izan da, eta 2006an saltoa ematea erabaki genuen. Kantatzen laguntzea da gure helburua. Jendea laguntzea. Horregatik kontzertu solidarioak egiten ditugu. Orain Milakolorekoekin egingo duguna prestatzen ari gara. Beraz, gitarra, kantua eta txistua uztartu ditut.

Urteurren berezia ospatu zenuen?

Azaroaren 22an, Santa Zezilian, elkarte batean ospatu genuen txistulari bezalako 50. urteurrena. Egun horretan bost hamarkadako ibilbidean nirekin aritutako txistulariekin eta atabalarekin asko elkartzeko aukera izan nuen. Oso oroitzapen polita gordeko dut, eta oso eskertuta nago.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Fakirraren ahotsa

2018ko Durangoko Azokaren ondoriozko etxerako lan horietako bat nuen Harkaitz Canoren azkena erosi eta irakurtzea. Canoren lan orok badute kalitatearen eta bikaintasunaren bermea, eta ez dira beti irakurtzeko erraz-errazak, baina euren zaporeek gure baitan irauten dute freskarri eta sakon.

Idazle honen ibilbidea luze-luzea da. *Kea behelaino*ean bezala poemategi urrun hartatik, zeinetik Flores ahizpek *Finean loreak* kanta ederra ondu zuten, sorkari ugari utzi dizkigu, narraziogintzan batik-bat.

Aurreko eleberri kolosalean, *Twist* izenekoan, Lasa eta Zabalaren auziari heldu zion, bipil, gordin eta aringarririk gabe, liburu sendo eta mamitsua osatu zuelarik.

Oraingoan ere memoriaren lanbideari lotu zaio, bipil eta gordin, berriz ere, Imanol Larzabal abeslariaren bizitzako hainbat atal fikziogai bilakatu.

Imanol abeslari hutsa baino askoz gehiago izan zen, ETako militante izatetik, Baltasar Garzonen laguna izan eta euskal abertzaletasun oro salatzerainoko bidea egin zuen. Kantari

MATERIAL TRINKO HONEXEkin CANOK ABENTURARI EKIN ETA ERTZ ASKOTAKO ELEBERRIA OSATU DU

sentibera eta ahots ederrekoa izaki garapen izugarria eduki zuen bere emari artistikoan eta euskal kantagintzaren zutabe indartsu horietako bat izan zen.

Militantzian harekin hasi ziren horietako batzuek gogorki eta anker baztertu eta iraindu zuten Yoyesen

omenaldiaz geroztik, eta herritar batzuen jokabide honetan Imanolek euskal gizarte osoaren arbuioa sentitu zuen. Deserri "antiglamouroso"ra jo eta Torreveijan hil zen.

Material trinko honexekin Canok abenturari ekin eta ertz askotako eleberria osatu du, tarteka konplexu samarra, baina zinez ederra. "Kontakizun" delakoaren puzzlean pieza esanguratsua harilkatu du Canok, "Patria" bezainbeste zabalduko ez dena, baina haren xumean eta erraldoitasunean ezinbestekoa.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Hurrengo legealdira begira Sakanako talde politikoei

EMAKUMEEN BILGUNEA

Hurrengo legealdia izango da Sakanako Udal guztietan, Mankomunitatearen bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lana egingo den lehenengo aldia. Hartu duten erabakiak esan nahi du Udal guztietako lanaren lehentasunen bat berdintasuna dela; horrela, lehenengo urratsa bete dute: politikarien konpromisoa eta lan egiteko erabakia, eta, bide batez, Berdintasunerako Foru Lege berria beteko dute.

Erabaki honek oso eragin positiboa izango du Altsasuko Uda-

laren lanean eta, halaber, Altsasuko Udalak egindako lanak Mankomunitateko prozesu berria erraztuko duela uste dugu. Hau dena azken helburua lortzeko asmoz: Sakanako emakumeen eta gizonen bizitza hobetzeko eta zonaldearen garapena bere biztanleen beharretara egokitzeko.

Bainakonpromisohau, helburuak finkatzeaz gain, eguneroko lan egiteko era bihurtu behar da, eta hau da talde politikoei eta hurrengo zinegotziek egin behar duten bigarren urratsa, lehenengoa bainagarantzitsuagoa, dudarik gabe.

GUTUNA

Hainbat alderdi politiko aho betean zabaltzen ari diren mezu xenofobo, atzerakoi eta antifeministek kezkatzen gaituzte

JOSU RUBIO MENDILUZE

SAKANA HARRERA HARANA

2019 hauteskunde urtea da. Hainbat alderdi politiko aho betean zabaltzen ari diren mezu xenofobo, atzerakoi eta antifeministek kezkatzen gaituzte. Migratzaileak gure gizartearen gaitz guztien erruduntzat jotzen dituen migrazioen aurkako diskurtsoa normalizatzen ari da. Zitala da: paperak-hots, eskubideak- ukatzen zaizkien pertsona horiek oso errentagarriak zaizkio kapitalismoari, eskubiderik gabeko pertsonak zapalduak izan daitezkeelako, zigorrik jasan gabe.

Giza eskubideen migrazioa, Europatik alde eginda, ez dugu nahi. Giza eskubideak ez dira bozkatzen eta ezin dira hautes-

kundeen gorabeheren menpe utzi: giza eskubideak besarkatzen dira.

Ahotsa goratu behar dugu elkartasunaren kriminalizazioaren eta neofaxismoaren gorakadaren aurrean; arrazista, matxista eta xenofoboa den eguneroko indarkeria instituzionalaren eta kanporatze-politiken aurka.

2018ko azaroan, hainbat gizarte mugimendutan parte hartzen duten 200 lagun inguruk 'M5-Herrien, pertsonen eta Giza Eskubideen besarkada' ekimen europarra sortu zuten Artea herrian. Ekimenaren testuinguruari dagokionez, aipatu behar da itsasertzeko zeharkaldia munduko mugarik hilgarriena dela gaur egun, urtero milaka baitira bertan hiltzen edo desagertzen diren pertsonak. Bigarren Mundu Gerraz geroztik piztu den migrazio-krisi handienaren kokaleku nagusi dugu Europa. Krisi horren jatorrian, gatazka armatuek gain, zapalkuntza, espolioa eta kanporatzeak eragiten dituen sistema ekonomiko kapi-

Hori egiteko, haien jardueraren politikoan etengabe kontuan hartzeko bi galdera proposatzen dizkiegu. Alde batetik, zer eragin izango du Udalean hartutako erabaki bakoitzak bai herrietako emakumeengan, bai gizonengan? Bigarrena, zer egiten ari gara enpleguan, zainketan, hezkuntzan, komunikazioan eta hizkuntzan, indarkerian, emakumeen eta gizonen arteko arraiak desagerrarazteko?

Laburbilduz, zer egiten dugu Udalaren aurrekontuekin? Badakigu nor jasozen duen eta zertarako?

Behin bi urrats hauek eginez gero, hurrengoak ziurtatuta daude: galderak erantzuteko tresnak eta prestakuntza izatea, eta neurriak martxan jartzea.

Alkate, zinegotzi eta batzorde guztien ardura delakoan...

talista, neokolonial eta heteropatriarkala dugu.

Pertsonak kategorietan sailkatzeten dituzten mugak altxatzea (batzuei eskubideak aitortuz, beste batzuei eskubide oro ukatzen zaien bitartean) ez da bidezkoa.

"Herrien besarkada" bizitzak eta giza eskubideak erdigunean kokatzen saiatzen da. Hilabete hauetan hainbat elkartek, sindikatuk eta bestelako eragilek bat egin dute kanpainarekin, eta ibilbide honi amaiera emango zaio Europako zenbait tokitan maiatzaren lehenbiziko asteburuan irudikatuko diren besarkada kolektibo eta solidarioen bidez.

Pertsona eta talde guztiei dei egiten diegu datozen egunetarako programatu diren jardueretan parte har dezaten. Atzeritarren legea bertan behera uztea, AIZ (Atzeritarrentzako Internamendu Zentroak) ixtea eta pertsonen ibiltze libreaken eskubidea betetzea exijitzen dugu.

HARRESIAK BOTA ETA ZUBIAK ERAIKI DITZAGUN!!!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua Miren Arregi Olivenza gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundifiano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 948 562 107 (Faxa) 618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank


s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Espainiako Kongresurako hauteskundeak 2019 vs 2016 – Sakana



EH Bildu lehen indarra atzera

Duela hiru urte egindako Espainiako Kongresurako hauteskundeetan Ahal Duguk kendu zion lehen postua. Moreek eta Navarra Sumak behera egin dute; gora, berriz, Geroa Bai eta PSOEk

SAKANA Sakandarrek Espainiako Kongresurako hauteskundeetan babes gehien EH Bildu koalizioari eman diote, 3.962 boto. Aurreko deialdian baino 1.244 boto gehiago lortuta lehen postua Unidas Podemosi kendu dio. **EH Bilduk** 10 puntuko hazkundea izan du bototan, % 37,45 jaso. Gainera, Sakanako 15 udaletan indar botatuena izan da koalizioa (Irañetan Navarra Sumarekin berdinduta).

Unidas Podemosek ezin izan dio lehen postuari eutsi 949 sakandar gutxiagok eman dielako babesa oraingoan, 10,74 puntuko jaitziera izan dute moreek. Hala ere, Sakanako bigarren indarra da botoen % 18,83 jasota, 1.992 boto. Koalizioa bi herritan izan da bigarren indarra, hamarretan hirugarren aukera eta hirutan laugarrena. Koali-

zioak bere Sakanako espazioa finkatu egin du.


PSOE da hauteskunde hauetan gora egin duen beste alderdietako bat. Sozialistak sakandarren hirugarren aukera bilakatu dira, 2016. urtean bosgarrena zen. Duela hiru urteko deialdian baino 834 boto gehiago jaso dituzte, eta 7,25 puntuko botoen hazkundea izan dute, 1.885 boto eskuratuta. Sakandarren % 17,82 PSOERI eman dio botoa, Unidas Podemosengandik puntu bakarrera. Bi herritan bigarren aukera izan zen sozialista, lautan hirugarrena, zazpi herritan laugarren aukera eta beste bitan bosgarrena.

Sakanan bototan gora egin duen bestea **Geroa Bai** izan da, 1.687 botorekin. 549 boto gehiago lortu ditu koalizioak eta Sakanako ordezkariaren % 15,95. 4,51 puntuko boto hazkundeak, ordea,


ez dio balio gora egiteko eta sakandarren laugarren gogoko aukera izaten segitzen du koalizioak. Geroa Bai Sakanako bederatzin herritan bigarren aukera bozkatuena izan zen, banatan hirugarren eta laugarren indarra izan zen eta beste lautan bosgarrena.

Navarra Suma koalizioa sakandarren hirugarren aukera izatetik bosgarrena izatera pasa zen igandean, botoen % 12,49 eskuratuta, 1.321 boto. Baina eskuineko hiru alderdien batuketak aurreko deialdian baino 645 boto gutxiago lortu ditu oraingoan. Bere boto ordezkari hiru urtetan 7,27 puntu jaitzi da Sakanan. Herriei erreparatuta, EH Bildurekin berdinduta, lehen indarra izan da Irañetan, beste hiru herritan bigarren indarra izan da, bakarrean hirugarrena, lautan lau-

Hauteskundearen emaitzak herrika 2016 vs 2019



Sakanako partaidetzaen datuak



garrena eta sei herritan bosgarren aukera.

Sakanan botoak lortu dituzten **gainontzeko alderdiek** ez dute % 2 gainditu. Haietatik, Vox da boto gehien dituen, % 1,84, 195 boto. Ultraeskuindarrek Arruazun eta Urdiainen ezik gainontzeko herri guztietan lortu dute botoren bat. Herri banatan laugarren eta bosgarren aukera izan dira Voxekoak, bederatzin seigarren indarra eta bitan zazpigarrena. Pacma (61 boto), Zero Murrizketa-Berdeak (20 boto) eta Bidezko Mundurantz (15 boto) hautagaitzek ere ez dute sakandarren artean aparteko oihartzunik izan.

Hiru urteren buruan Kongresurako hauteskunde erroldan 56 pertsona gutxiago zeuden. 15.589 sakandarrek zuten botoa emateko aukera eta horietatik 10.793k egin zuten (% 69,68). Igandeko parte-hartzea, 2016ko deialdiarekin alderatuta, 4,37 puntu egin

ditu gora. 111 boto ez beste guztiak baliagarriak izan ziren. Txuri zeuden botoak, azkenik, 103 izan ziren.

Alderaketak

Azken legegintzaldian Nafarroako Gobernuari eutsi dioten indarrak dira EH Bildu, Unidas Podemos eta Geroa Bai. Hiruen artean botoa eman zuten hamar sakandarretatik zazpiren botoa jaso zuten. 7.641 boto dira, duela hiru urte baino 844 boto gehiago. Gorteetarako aurreko hiru deialdian boto abertzaleak (EH Bildu eta Geroa Bai) behera egin ondoren, igandean gora egin zuen 1.793 bototan eta 5.649ra iritsi zen, % 52,33. Duela hiru urte EH Bildu Sakanako zortzi herritan izan zen nagusi, Elkarrekin Ahal Dugu lautan eta UPN-PP koalizioa hirutan. Igandean EH Bildu herri guztietan izan zen nagusi, Irañetan Navarra Sumarekin berdinduta.

Udal hauteskundeetara 25 zerrenda aurkeztu dira

Zazpi herritan hautagai bakarria izatean alkatea zein den badakite. Irañetan eta Iturmendin ez da hautagaitzarik aurkeztu eta udazkenara itxaron beharko da udal berriak sortuko diren jakiteko. Sakanako kontzeju guztiak, 15ak, berrituko dira

SAKANA

Nafarroako Aldizkari Ofizialak udal hauteskundeetarako behin betikoz zerrendak argitaratu zituen asteartean. Sakanako udalak berritzeko 25 hautagaitza aurkeztu dira, duela lau urte baino bederatzi gutxiago. Zerrenda kopurua gutxitzean zerikusi zuzena du UPNk, PPK eta Ciudadanosek Navarra Suma zerrenda bateratuan aurkeztean, lehen bien artean aurreko deialdian bederatzi zerrenda aurkeztu zituztelako eta oraingoan lau besterik ez. Arakilgo eta Irurtzango independenteak ere ez dira aurkeztu. Arakilgo Independenteen taldeko Paz Gonzalez Saguesek esan digunez, "zerrendan zeuden batzuk errepikatu nahi zuten, besteak ez. Eta azkenean ez da zerrendarik osatu. Trantsiziotik lehen aldia da independenteen zerrenda aurkezten ez dena". Bestalde, bi herritan, Irañetan eta Iturmendin, deialdi honetan ez da udal hauteskunderik izanen.

Generoa

Hauteskunde lehiara aurkeztutako 25 zerrendak 260 pertsonaz osatuta daude. Haietatik 150, gizonezkoak dira, % 57,69. Gai nontzeko 110 hautagaiak emakumezkoak dira, % 42,31. 25 zerrenda horietan buru edo alka-

tegai 19 gizonezko dira; % 76, duela lau urte baino 2,47 puntu gehiago. Gainontzeko 6 alkategaiak emakumezkoak dira, % 24.

Udal hauteskundeetara aurkeztutako 25 zerrendetatik bostetan (%20) soilik daude emakumezko gehiago gizonezkoak baino: Arbizuko, Etxarri Aranazko eta Ziordiko EH Bildukoetan, Ergoienako Askogainen eta Olatzagutiko PSNkoan. Bestetik, Irurtzango EH Bilduko zerrendan emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua bera da.

Udalak

Dagoeneko Sakanako zazpi herritan badakite zein izanen den alkatea hurrengo legegintzaldian, honakoak dira: Arakilen, Uharte Arakilen, Arruazun, Lakuntzan, Arbizon, Bakaikun eta Urdiainen. Hautagaitza independenteen alkatea izanen da Arruazukoa, gainontzeko alkateak EH Bildukoak izanen dira.

Beste lau herritan bi hautagaitza aurkeztu dira. Navarra Suma eta EH Bildu koalizioen arteko lehia izanen da Irurtzunen eta Etxarri Aranatzaren. Ergoienako Udalerako bi talde independente aurkeztu dira. Ziordian, berriz, Geroa Bai eta EH Bildu

koalizioen artean aukeratu beharko dute herritarrek.

Olaztiarrek hiru hautagaitza dituzte aukeran: Navarra Suma, PSOE eta EH Bildu. Altsasuarrek, beste behin, hautagaitza eskaintza zabalena izanen dute, zazpi: Navarra Suma, Izquierda Unida, PSOE, Geroa Bai, Ahal Dugu, EH Bildu eta Vox.

Bitxikeriak

Legegintzaldi honetan alkate izan eta hautagaitza errepikatu dutenak bost dira (%33,33): Aitor Larraza Carrerra (Irurtzun), Patxi Xabier Razkin Sagastibelza (Lakuntza), Egoitz Urriza Lazkoz (Bakaiku), David Oroz Alonso (Urdiain) eta Javier Ollo Martinez (Altsasu).

Bestalde, Altsasuko zerrendei erreparatuta izen ezagun asko agertzen dira. Navarra Suma koalizioaren zerrendan daude igandean senatari kargua lortu zuen Ruth Goñi Sarries (Ciudadanos) eta UPNko Batzorde Beteazleko Raquel Garbayo Berdonces eta Jose Luis Sanchez de Muniain Lacasia. Altsasun 2003 eta 2007 urteen artean UPNko zinegotzi izan zen Ramon Casado Oliver tuterarra ere zerrendan dago. Azkenik, koalizio eskuin-

darraren parlamentuko zerrendan 7. Cristina Ibarrola Guillen ere zerrendan dago.

Bestetik, gaur egun alderdi sozialistaren Olatzagutiko zinegotzia dena Altsasuko PSNren zerrendaburu izanen da. Zerrenda hori Juan Migel Perez Hurtadok ixten du. Berak esan digunez, Altsasuko talde sozialista legegintzaldi honetan ez da "batere ongi" moldatu Nafarroakoarekin eta handik prestatu dute kanpotarrez betetako zerrenda. Perez "zerrendaren eta Altsasuko talde sozialistaren lotura gisa" dago, besterik ez. Azkenik, Voxen zerrendan alderdiko Nafarroako idazkari Yolanda Ruiz Amostegi dago. Voxeko idazkari nagusi Javier Ortega Smith-Molinaren anaia ere zerrendan dago. Voxen ordezkoren artean Salvador Ulaiair Mundiñano etxarriarra dago.

Udal hauteskundearen banaketa

Udala	Zerrendak	Hautagaiak	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
			Zerrendetan	Alkategai	Zerrendetan	Alkategai
Arakil	1	7	5	0	2	1
Irurtzun	2	25	15	2	10	0
Uharte Arakil	1	8	6	1	2	0
Arruazu	1	5	3	1	2	0
Lakuntza	1	9	6	1	3	0
Arbizu	1	11	5	1	6	0
Ergoiena	2	18	11	2	7	0
Etxarri Aranatz	2	22	11	1	11	1
Bakaiku	1	7	6	1	1	0
Urdiain	1	7	6	1	1	0
Altsasu	7	100	55	4	45	3
Olatzagutia	3	27	14	3	13	0
Ziordia	2	14	7	1	7	1
Sakana	25	260	150	19	110	6



ERABAKI ZURE BIDEA

Goierri Eskolak Ate Irekien Jardunaldira gonbidatzen zaitu.
Ezagutu ezazu Lanbide Heziketako gure eskaintza.

• Goi Mailako zikloak • Erdi Mailako zikloak • Oinarrizko LH

Maiatzak 11, larunbata, 10:00etan

www.goierrieskola.eus



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

Udaletako hautagaitzak

ARAKIL

Euskal Herria Bildu

1. Oihana Olaberria Jaka
2. Irantzu Escudero Jaka
3. Iker Alegre Santander
4. Jose Javier Beroiz Plano
5. Jesus Maria Gaztañaga Gonzalez
6. Raul Angulo Blanco
7. Juan Jose Madariaga Orbea

IRURTZUN

Navarra Suma

1. Domingo Goñi Sarasola
2. Luis Enrique De la Calle Moreno
3. Enrique Tenorio Ruiz
4. Antonio Vilches Corral
5. Manuel Senra Iglesias
6. Jose Javier Cano Clemente
7. Itziar Pellicer Satrustegi
8. Beatriz Lacabe Caballero
9. Maria Nieves Sanchez Arteaga
10. Jaime Lozano Espinosa
11. Roberto Erro Sada

Euskal Herria Bildu

1. Aitor Larraza Carrera
 2. Agurtzane Garijo Peralta
 3. Eduardo Murugarren Frances
 4. Ana Balda San Juan
 5. Joseba Royo Garcia
 6. Ana Maria Santander Lizaso
 7. Antonio Nicolas Ollakarizke-ta Elizondo
 8. Naiara Garcia Royo
 9. Felix Javier Mendia Villanueva
 10. Oihane Saldias Otsotorena
 11. Juan Jose Iriarte Vitoria
- #### Ordezkoak
1. Eider Carrion Ninatanta
 2. Unai Razkin Iriarte
 3. Irantzu Osinaga Larraza

UHARTE ARAKIL

Euskal Herria Bildu

1. Jose Domingo Huarte Baleztena
2. Iker Gorriti Borreguero (Independentea)
3. Amagoia Betelu Aldaz (Independentea)
4. Eneko Martiarena Betelu (Independentea)
5. Julen Martiarena Arza
6. Marcelino Villanueva Palacios
7. Amagoia Hermoso de Mendoza Sainz

Ordezkoak

1. Juan Jose Goikoetxea Berasategi

ARRUAZU

Batzalarre

1. Gorka Ovejero Ganboa
2. Xabier Ganboa De Miguel
3. Amaia Bermejo Arana
4. Ainara Martin Busto
5. Jokin Lanz Betelu

LAKUNTZA

Euskal Herria Bildu

1. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza
2. Rita Torrico Muniz
3. Aitor Garcia Monfort
4. Ruben Rodriguez Romero
5. Maria Cruz Azkona Larreta
6. Jose Francisco Uribe-Etxeberria Flores
7. Sergio Goikoetxea Bergera
8. Ricardo Palacios Andueza
9. Uxue Lazkano Maiza

ARBIZU

Euskal Herria Bildu

1. Francisco Javier Razkin Flores
2. Aizaga Zeberio Petriati
3. Ane Lizarraga Begiristain
4. Jon Ander Mendinueta Iribarren

5. Aitziber Arbizu Garmendia
 6. Mikel Berastegi Unzilla
 7. Maitane Intxaurreaga Uribarri
 8. Migel Angel Urkia Arretxe
 9. Monika Etxebarria Ariznabarreta
- #### Ordezkoak
1. Patxi Xabier Asa Ortigosa
 2. Ainara Ladron Urbieta

ERGOIENA

Askogain

1. Emeterio Senar Elso
 2. Miguel Jesus Navarro Andueza
 3. Maite Bakaikoa Navarro
 4. Blanca Reyes Senar Solis
 5. Oihana Ruiz Goldarazena
 6. Miriam Berastegi Gurutzarri
 7. Iñaki Andueza Elso
- #### Ordezkoak
1. Ander Beltza Goldarazena
 2. Idoia Gurutzarri Senar

Batzarramendi

1. Ibai Alonso Suarez
 2. Eneka Lizarraga Unanua
 3. Javier Mozo Lizarraga
 4. Joseba Imaz Berastegi
 5. Patxi Xabier Lizarraga Etxeberria
 6. Ruben Mozo Lizarraga
 7. Martin Miranda Lizarraga
- #### Ordezkoak
1. Josune Lizarraga Razkin
 2. Iñaki Gaulabur Razkin

ETXARRI ARANATZ

Navarra Suma

1. Manuel Eugenio Leal Villadangos
2. Maria Mercedes Sampedro Lopez
3. Juan Manuel Garcia Albericio
4. Cristian Manuel Dos Santos Dos Santos
5. Ingrid Vindel Perez
6. Jesus Alberto Laspalas Bikondoa
7. Maria Paz Lopez Agoitz
8. Angel Fernandez Cortes
9. Alejandro Arantegi Mateo
10. Maria Pilar Fernandez Garcia

11. Raul Chacon Alfaro

Euskal Herria Bildu

1. Silvia Marañon Chasco
2. Lur Iosu Larraza Lopez
3. Maria Saez de Albeniz Bregaña
4. Unai Artieda Estanga
5. Goizeder Castellano Olea
6. Jesus Razkin Ijurra
7. Maria Anunciacion Lopez Urmeneta
8. Arturo Carrero Mundiñano
9. Amagoia Lizarraga Perusqui
10. Araceli Erdozia Anso
11. Eneka Maiz Ulaier

BAKAIKU

Euskal Herria Bildu

1. Egoitz Urritza Lazkoz
2. Arantxa Jungitu Aseginolatz
3. Josetxo Kintana Larraza
4. Francisco Javier Zeberio Arraras
5. Ekhi Etxeberria Kaiuela
6. Aner Galarza Barandiaran
7. Ion Tabar Cayuela

URDIAIN

Euskal Herria Bildu

1. David Oroz Alonso
2. Aitziber Chueca Galarza
3. Julen Goikoetxea Urdiain
4. Francisco Berdote Hernandez
5. Alex L. de Goikoetxea Eskisabel
6. Mikel Azkona Unanua
7. Aitor Zubiria Arregi

ALTSASU

Navarra Suma

1. Javier Lopez Patus
2. Carlos Jimenez Ruiz
3. Raquel Garbayo Berdonces
4. Ramon Casado Oliver
5. Margarita Alonso Perez
6. Juan Luis S. de Muniaín Lacasia
7. Cristina Ibarrola Guillen
8. Francisco Javier Garcia Vicente
9. Irene Viela Ibañez
10. Juan Miguel Oteiza Huarte
11. Ana Maria Ruiz De Arriba
12. Ruth Goñi Sarries
13. Maria Jesus Valdemoros Erro

Izquierda Unida

1. Gonzalo Montoya Serrano
2. Arturo Carreño Parras
3. Adriana Remigio Rodriguez
4. Marta Barquilla Barroso
5. Jose Pedro Palacios Baz
6. Santiago Moreno Guisado
7. Maria Asuncion Palomino Mateo
8. Celsa Lopez Garcia
9. Pedro Santano Cava
10. Juan Manuel Malato Costa

11. Juana Maria Gasco Claro
12. Yolanda Pelaez Lopez
13. Aurelio Lucas Andrade

Partido Socialista de Navarra

1. Jose Maria Acerete Sanchez
2. Emilio Rodriguez Pociña
3. Laura Murugarren Corera (Independentea)
4. Ana Azkarate Sainz
5. Jesus Angel Diez Bazan (Independentea)
6. Patricia Uriz Iriarte
7. Maria Pilar Sanchez Perez (Independentea)
8. Francisco Javier Montero Armiño
9. Maria Del Mar Zuñiga Martinez (Independentea)
10. Mario Beisti Royo (Independentea)
11. Joseba Andoni Muro Conde
12. Blanca Maria Porres Ortega (Independentea)
13. Juan Miguel Perez Hurtado

Geroa Bai

1. Javier Olo Martinez
 2. Manuel Bergera Ijurko
 3. Julen Diaz Oiarbide
 4. Maria Carmen Viana Murga
 5. Maria Del Carmen Goikoetxea Napal
 6. Joseba Jokin Zelaia Oiarbide
 7. Idoia Ibañez de Opakua Amillano
 8. Pedro Maria Jimenez Elvira
 9. Pedro Jose Iglesias Mendiluce
 10. Maria Carmen Otaegi Saez de Maturana
 11. Maria Jesus Miguel Barriocanal
 12. Unai Hualde Iglesias
 13. Santiago Luceño Arias
- #### Ordezkoak

1. Jose Angel Agirrebengoa Imaz
2. Maria Milagros Mazorriaga Mugika
3. Fermin Zabala Ruiperez

Podemos

1. Virginia Alonso Aparicio
2. Jose Luis Moran Fernandez
3. Juan Luis Lopez Muñoz
4. Iñigo Agirre Jauregialzo
5. Maria Pilar Vicente Perez
6. Juan Pedro Higuero Fernandez
7. Mayra Del Rocio Yanez Casa
8. Lorenzo Teodoro Perez Camara
9. Juana Fernandez Rodriguez
10. Aitor Vitas Gil
11. Jose Antonio Palop Quesada
12. Jose Maria Exposito Perez
13. Maria Pilar Velasco Novella

Euskal Herria Bildu

1. Maria Isabel Lopez de Uralde Muñoz
2. Francisco Javier Paz Miño
3. Josu Miren Rubio Mendiluze
4. Maialen Pelaez Letona
5. Itxaso Alzelai Urdaniz

FP SAKANA LH

Ikastetxe Integratu Politeknikoa



IKASTETXE BIKAINA
CENTRO EXCELENTE

Goi mailako zikloak

- Mekatronika Industrial
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (Dual)

Erdi mailako zikloak

- Mantentze-Lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak-Mendi Ertaina
- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak-Eskalada
- Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Laguntza (D Eredua)

Gainera...

- Merkataritza Zerbitzuak (OLH)
- Ziurtagiri Profesionalak

Ate irekien jardunaldia

Maiatzak 7

08:15 h - 19:00 h

Otamena 19:00 h



SKOLAE
BEPON BIDEAN



Nafarroako
Gobernua



EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA

Altsasu, Zelai 93 kalea 31800 Tlf: 948-564-815 <http://ifpalsasua.net/>

6. Juan Jose Goikoetxea San Roman
 7. Itziar Flores Mazkiaran
 8. Jesus Galarza Zelaia
 9. Maria Asuncion Fernandez de Garaialde Lazkano
 10. Manex Goikoetxea Presa
 11. Garazi Urrestarazu Zubizarreta
 12. Avelino Gonzalez Fernandez
 13. Maria Camino Mendiluze Arregi
- Ordezkoak**
1. Hasier Galarza Pozueta
 2. Zuzene Erro Martinez
 3. Raul Barrena Gonzalez

Vox

1. Maria Rosario Estevez Garcia
 2. Yolanda Ruiz Amostegi
 3. Juan Manuel Cabeo Cabrera
 4. Fernando Jesus Estaun Oses
 5. Victor Antonio Miralles Perez
 6. Rosa Maria Jimenez Roman
 7. Carmen Quintana Perez
 8. Enrique Palazuelo Reoyo
 9. Alvaro Luis De San Andres Navalon
 10. Victor Manuel Ortega Smith-Molina
 11. Encarnacion Vea Sesma
 12. Maria Luisa Miñes Baleta
 13. Florencio Igal Lajusticia
- Ordezkoak**
1. Joaquin Lizarza Dendariarena
 2. Salvador Ulaiar Mundiñano
 3. Jaime Jose Azkona San Julian

OLATZAGUTIA**Navarra Suma**

1. Javier Fernandez Brizuela
2. Luis Santiago Saez Canales
3. Gerardo Torrientes Alonso
4. Paula Andrea Calero Rincon
5. Tamara Saez Rodriguez
6. Maria Dolores Rodriguez Erize
7. Yulieth Andrea Rios Calero
8. Pedro Javier Garrido Sanchez
9. Maria Mercedes Garcia de Kortazar Ruiz de Agirre

Partido Socialista de Navarra

1. Javier Murugarren Clavijo (Independentea)
2. Patricia Murugarren Corera (Independentea)
3. Jesus Enrique Villegas Lopez (Independentea)
4. Maria Jesus De Carlos Gurbindo (Independentea)
5. Francisco Jose Torres Alvarez (Independentea)
6. Idoia Montero Azofra (Independentea)
7. Rufino Megias Heredia (Independentea)
8. Monica Gutierrez Alvarez

- (Independentea)
9. Maria Amelia Clavijo Jarauta (Independentea)

Euskal Herria Bildu


1. Roberto Martinez Mendia
2. Joseba Vizuete Askargorta
3. Joaquin Landa Mendinueta
4. Naroa Gurmindio Vicente
5. Unai Ruiz Larraza
6. Maider Alba Lopez
7. Haizea Armendariz Santamaria
8. Oihane Arrondo Rosano
9. Ignacio Marañon Marañon

ZIORDIA**Euskal Herria Bildu**

1. Olatz Irizar Martinez
2. Edurne Casas Otsoa
3. Francisco Javier Peral Cuesta
4. Rosa Maria Mendoza Arregi
5. Oscar Otsoa Etxeberria
6. Maider Percas Urdiain
7. Ainhoa Iparragirre Mendia

Geroa Bai

1. Miguel Angel Agirre Larraza
2. Fernando Fuste Martin
3. Consuelo Ramirez Forcada
4. Jesus Maria Arrese Galbete
5. Jose Javier Sarasola Gorriti
6. Cristobal Lanz Lapuente
7. Julia Maria Jaurrieta Oses

**Alderdiak herrika**

- **EH Bildu (11)**
Arakil, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.
- **Navarra Suma (4)**
Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutia.
- **Independenteak (3)**
Arruazu eta Ergoiena.
- **Geroa Bai (2)**
Altsasu eta Ziordia.
- **PSN (2)**
Altsasu eta Olatzagutia.
- **Ahal Dugu (1)** Altsasu.
- **Izquierda Unida (1)** Altsasu.
- **Vox (1)** Altsasu.

**Kontzejutako hautagaitzak****URRITZOLA****Urritzolako Independenteak**

1. Fermin Mariñelarena Iraizoz

ERROTZ**Errozko Independenteak**

1. Sergio Altuna Garro
2. Jose Javier Ruiz de Erentxun Del Castillo
3. Francisco Javier Ortega Avila
4. Irineo Ignacio Toledano Paternain
5. Begoña Omatos Soria

IZURDIAGA**Izurdiaga Independenteak**

1. Unai Osakar Izko (Independentea)
2. Juan Jose Azparren Arteaga (Independentea)
3. Maria Rosa Beraza Ameztegi (Independentea)
4. Dei Arteaga Urrutia (Independentea)
5. Luis Miguel Beraza Ameztegi (Independentea)

ETXEBERRI**Etxeberri Taldea**

1. Javier Martija Etxarri
2. Felix Lopetegui Soravilla

3. Oscar Antonio Lizarraga Garziandia
4. Marcial Zestau Juantorena
5. Pedro Auza Egillor

EGIARRETA**Egiarretako Talde Independentea**

1. Estebe Lazkoz Garaikoetxea
2. Joaquin Lazkoz Olaetxea
3. Miguel Erbiti Fernandez
4. Fermin Izkieta Arbillia
5. Mikel Villanueva Arroniz

ETXARREN**Etxarrengo Independenteak**

1. Miguel Angel Irurtia Sario
2. Roberto Etxeberria Irurtia
3. Pablo Legarra Buldain
4. Asier Santesteban Garcia
5. Igantzi Jauregi Ezkurra

ZUHATZU**Zuhatzuko Independentea**

1. Juan Pedro Arregi Sarasa

EKAI**Independientes de Ekai**

1. Francisco Javier Huarte Garro

SATRUSTEGI**Agrupacion Independiente de Satrustegi**

1. Juan Pedro Amoztegi Zubillaga

HIRIBERRI ARAKIL**Hiriberri Arakil Taldea**

1. Jose Cruz Arbillia Carasatorre
2. Javier Arrieta Aniz
3. Jose Luis Legarra Muruzabal
4. Salvador Eusebio Unanua Ihaben
5. Jose Maria Urroz Iturmendi

IHABAR**Ihabarko Independenteak**

1. Mikel Miren Jimenez Irurtzun
2. Nerea Huarte Irurtzun
3. Mikel Astiz Erro
4. Oscar Garcia Royo
5. Imanol Irurtzun Artola

UNANU**Unanuko Kontzejua**

1. Jesus Maria Balda Mercero
2. Mikel Mayo Lizarraga
3. Ainhoa Hernan Mendibe
4. Roman Mercero Berastegi
5. Isabel Villar Gurrutxaga

DORRAO**Dorraoko Kontzejua**

1. Idoia Resano Igoa
2. Ion Ander Lizarraga Lizarraga
3. Iosu Resano Mendinueta
4. Urko Resano Gonzalez
5. Amaia Lizarraga Unanua

LIZARRAGA**Lizarragako Kontzejua**

1. Unai Navarro Aristorena
2. Emeterio Senar Elso
3. Miriam Berastegi Gurutzarri
4. Mikel Beltza Goldarazena

LIZARRAGA-BENGOA**Aitzurdin**

1. Teresa Goikoetxea Arregi

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA**Akats zuzenketa, Hirigintza Jarduketa Plan Berezia hasiera bateko onespeneraren iragarkian**

2019ko martxoaren 18ko 53. Zenbaki-dun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Hirigintza Jarduketa Plan Berezia hasiera bateko onespeneraren iragarkia. Hartan akatsa badela oharturik, ondok ematen da behar den zuzenketa. Lehendabiziko paragrafoan, honela dioen tokian "Inmobiliaria Olarena 3 SLk sustaturik", honela behar du "Azkenga, SLk sustaturik".

Olatzi/Olatzagutian, 2019ko apirilaren 26a. Alkateak, Mikel Azkargorta Boal.



Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763



Lau herri, bost maiatza

Etxarriarrek, bakaikuarrek, iturmendiarrek eta ziordiarrek euren egitekoak egin zituzten herenegun: maiatzak jasotzea. Ziordiarrek bitan, herrian eta mendian. Eguraldia lagun jendetza bildu zen goizean barga gainean Etxarriko eta Bakaikuko maiatzak jasotzen ikusteko. Arratsalde pasa egin zuten askok iturmendiarrak maiatza igotzen ikusi eta ondorengo poteoan.

Maravillasen husteagatik lau sakandar epaitegira

Gaur, 19:00etan, manifestazioa egingen da Altsasun. Epaiketa ostegun goizean da

ALTSASU

Ilbeltzaz geroztik Iruñeko Alde Zaharrean ez dago gaztetxerik. Marques de Rozalejo jauregia bitan hustu zuten foruzainek, agorrilaren 17an eta ilbeltzaren 8an. Aurreneko husteagatik lau sakandar auzipetuta daude, eta ostegun goizean Nafarroako Lurralde Auzitegian epaituko dituzte. Haiekin batera, Euskal Herriko beste 22 dira ostegunean epaituko dituztenak. Usurpazio delitu arina leporatzen diete. “Zigorra isun bat litzateke. Ez litzateke kartzelarik egonen”. Maravillasen aldekoek zabaldu dutenez, 82 auzipetuendako isunak, guztira, 109.160 euro izan daitezke. “Kristoren erokeria da. Oso zifra altua da eta horri buelta emateko elkartasun egunak antolatzen ari dira Euskal Herriko leku guztietan”.

Ekitaldiak

Sakanako elkartasun eguna larunbatean ospatu zen. Ziordiko Amarauna guneko autogestionatua izan zuen egoitza. Hori ez da Maravillasen alde egin den ekitaldi bakarra. Iturmendin, herenegun, maiatzaren jasotzea zela baliatuz, herri bazkaria antolatu zen. Eta Iturmendin segituz, San Migel festetan gazteek elkarrekin hartu dute, isunei aurre egiteko dirua ateratzeko. Baina aldarrikapena ere kalera atera nahi dute eta gaur, 19:00etan, Altsasun manifestazioa egingen dute, *Epaiketa guztien gainetik... Gaztetxeak defendatu! Maravillas herriarentzat!* leloa duena. Ostegunean, Iruñeko auzitegi parean 09:00etan kontzentrazioa deituta dago. Arratsaldean, berriz, Brigade Loco eta Rude Pride taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean.

Hustea salatze bide mozketak transfeminista egin zuten eta, horregatik, hiru sakandarrei Mozal Legea aplikatu diezaiekete.

Hautetsiendako goi tentsioko lineak "ez du justifikaziorik"

Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako 438 alkatek eta zinegotzik adierazpena sinatu dute, Sakanako 71k

SAKANA

Red Electrica Españolak (REE) aurretik proposatutako bi proiektu atzera bota ondoren, Castejon/Muru Artederreta eta Itsaso artean 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko 100 km-ko argindar linea egin nahi du. 438 udal eta kontzeju ordezkariak egitasmoaren kontrako adierazpena ezaguturazi zuten larunbatean. Aipatu proiektuak “justifikaziorik ez” duela eta “beharrezkoa ez” dela nabarmendu dute. Eta, aldi berean, adierazi dute “garraio elektrikoaren azpiegiturak optimizatzearen alde” apustu egingen dutela, eta “hornikuntzaren hobekuntza planak betetzea” eskatu dute, “benetako beharretara egokituz”.

438 hautetsiek erakunde eskudunei eskatu diete “goi tentsioko linea behin betiko eta denborarik galdu gabe atzera botatzea, horrela errespetatuko baita herritar gehiengoaren borondatea eta gizartearentzat ondare, natura eta kultura balio handia duten guneean kalte konpon ezina ekidinen da”. Aldi berean, Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari “multinazional elektrikoaren interesen aurrean udalen eta kontzejuen alde jaretzea” eskatu diete.

Pentsio duinen aldeko aldarrikapenak ez du etenik

Sasoiak elkarrekin deituta Irurtzongo azokan 50 bat pertsona elkartu ziren asteartean. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea exijitu dute. Horri lotuta lan erreformak bertan behera uztea aldarrikatu dute. Sakanako Pentsiodunen Koordinadorak astelehenean, 12:00etan, Altsasuko udaletxe parera deitu du.

Altsasukoa bortxaketa izan zela ebazti du Gorenak

2016ko kinto ospakizunetan sexu erasoak izan zen. Lehenik, Nafarroako Lurralde Auzitegiak epaitu zuen eta gizonezko altsasuar bati, bortxaketatik, 6 urteko espetxe zigorra ezarri zion. Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak gertatutakoa sexu abusuztat jo zuen, ez bortxaketa gisa: 4 urteko kartzela zigorra.

Espainiako Auzitegi Gorenak bat egin du lehen epaiarekin bat egin du. Gorenako epaileen arabera sexu eraso gisa kalifikatzeko indarkeriazko eta beldurrazteko elementuak izan ziren kinto ospakizun hartako kasuan. “Biktimaren ezezkoa argia izan arren, erasotzaileak behartu egin zuten, eta eraso egin zion”.

Guk armak egin, haiek gerra, eta migrazioa

Sakana Harrera Haranak antolatuta *Gerra hemen hasten da* dokumentala ikusteko aukera izanen da gaur, 18:00etan, Iortia kultur gunean. Gainera, ikusentzunezkoaren zuzendari Joseba Sanzen eta Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko Argi Otoak hitzaldia emanen dute. Sanzek dokumentalaren abiapuntua Ignacio Robles suhiltzaileak Bilboko portuan 2017ko martxoaren 13an egin zuen desobediencia ekintza dago: armaz betetako edukiontzia Saudi Arabiara zihoan itsasontzi bat ikuskatzera uko egin zion, armak Yemengo gatazkarako zirelako.

Gertaerak agerian utzi zuten Euskal Herriko industria militarren garrantzia. Baita Ekialdean gerran dauden herrietara bertatik bideratzen den esportazioaren tamaina handia ere. Sanzek berehala egin zuen lotura: “hemendik armak esportatu, gerretan erabili eta errefuxiatuak etorri”. Roblesen eta Yemendar baten elkarriketak dira dokumentalaren ardatza, baina badira gehiago ere. Dokumentalaren bidez armen ekoizpenaren eta salmentaren gaineko hausnarketa egin nahi du. Enpresa horiek Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzak eta hemengo banku batzuek ematen dieten finantzaketa ere aztergai du.

Udalak jubilatuko elkarteari diru-laguntza handitu dio

Funtzionamendu gastuak ordaintzera bideratuko dira. Aierraren liburua Txalapartarekin berrargitaratuko du

ALTSASU

Altsasu Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak La Union jubilatuko elkartearekin hitzarmen berria sinatzea erabaki zuen astelehenean. Elkarrekin udalak utzitako eraikina erabiltzen du. Argindar, ura, gasa, berogailua, hondakinak, telefonoa, aseguruak eta mantentze gastuak ordaintzeko udalak elkarteari dirulaguntza ematen dio. Erabakitakoaren arabera aurtengo 13.857 euro izanen dira, aurrekoan baino 3.000 euro gehiago.

Bilkura berean udalak erabaki zuen Txalaparta argitaletxearekin kontratua egitea, hark Mariano Aierra Redinen *No me avergonce del evangelio* liburua berrargitaratzeko. 1936ko estatu kolpearen ondorengo erreprezioaren berri jaso zuen liburu horretan Aierrak. Historia memoriaren lekukotza hori herri-tarren eskura jartzeko udalak argitaletxeari 7.000 euro pagatuko dizkio. Udalak 10 ale dohain jasoko ditu. Eta bere konpromisoetarako % 40ko deskontuarekin eskuratzeko aukera izanen du, beti ere, saltzeko ez badira.

Baso lanak

Aurtengo basolanak Excavaciones y Construcciones Bartolo SL enpresak egingen ditu 32.982 euroren truke (BEZ kanpo). Alde batetik, Usolarrain-Basamutur inguruan sasiak kendu eta bakanak egin beharko ditu. Usolarrain aisialdi gureko egu-

rezko itxitura ere berrituko du enpresak. San Pedrozelaiko itxitura ere berrituko du. Zezenaga-Santaluzian ere 1.100 metro luzeko itxitura egingen du. Aldi berean, Zezenaga, Asentu eta Kostakosoi dermioetan duela 30 urte baino gehiago jarritako eta egoera txarrean dauden itxiturak kenduko ditu.

Bestalde, alkateak jakinarazi du Altsasuko bi erraldoi berriak Aitor Callejak eta bere lantaldeak egingen dituztela. Erraldoi eta buruhandien konpartsako kideei jaramon eginez hartu zuen udalak erraldoi pare berri bat egiteko erabakia. Aurtengo aurrekontuan 14.000 euro daude horretarako bideratuta. Alkateak zehaztu duenez, "Altsasuko kultura eta tradizioekin zuzeneko lotura duen bikote bat" izanen da. Festetarako prest izatea espero da.

Dantzalekuko taberna

Altsasuko Udalak, Atabo Altsasu SL enpresa publikoaren bidez, Dantzalekuko taberna-jatetxearen kudeaketa emateko deialdia egin du. Deialdian interesa duten pertsonak jakin behar dute ostalaritza azpiegitura kudeatzeaz aparte, kirol gunearen eta Usolarrain aisialdi gunearen mantentze ere arduratu beharko direla. Maitzaren 14ra arte aurrez daitezke proposamenak.

Kontratua urte baterako izanen da eta beste bi urtez luza daiteke. Hartzaileak hileroko 2.077,62 euro jasoko ditu udalarengandik.

Auzolan eredua zehazteko bi saio

Herriko plan estrategikoaren barruan jasotako lehentasunetako bati forma emateko lan saioak antolatu ditu udalak. Larunbatean, 11:00etan, udaletxean bakaikuar guztiei zabalik dagoen saioa egingen da. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da

BAKAIKU

Bakaikuko Plan Estrategikoa egindakoan hiru lehentasun markatu ziren: etxebizitza, eskolen eraikina eta auzolana. Besteak baino lanketa txikiagoa eta uda aurretik despeditu zitekeen gaia zelako auzolanari ekitia erabaki zuten bakaikuarrek. Bakaikuko Plan Estrategikori jarraipena egiten dion batzordea osatu dute 20 bat bakaikuarrek. Otsailean hasi ziren biltzen eta auzolanaren inguruko hainbat aspektu aztertzen. Beste bi gaiak uda pasa ondoren helduko diete.

Auzolanari buruzko eztabaida lantzeko hiru taldetan banatu ziren. Aurrenak lege arloa landu du, beste herrietako ordenantzak aztertu dituzte, besteak beste. Bigarrenak, auzolanean egin daitezkeen lanak identifikatu ditu. Atzeneko batzordeak, berriz, auzolanak izan beharko litzuzkeen gako nagusiak identifikatzen saiatu da (behartua edo ez, deialdi pertsonala edo zabala, isunak...). Egindako lan guztia Emun kooperatibari eman diote eta hura da hurrengo bi saioak gidatuko dituenak.

Erantzunak

Auzolanari buruzko ikuspuntu ugari daude, eta gaiak luze eman dezake. Zer nahi dugu? Zer behar



Asier Razkin, Egoitz Urritz eta Aner Galartza udal ordezkariak. BAKAIKUKO UDALA

dugu? Zertarako? Galdera horiei erantzuteko Emunek gidatuko dituen bi saio ireki antolatu ditu Bakaikuko Udalak. Bi ordu eta erdiko saioak dira. Aurrena bihar egingen da eta hurrena hilaren 18an. Egoitz Urriza Lazkoz alkateak esan digunez, "saioetan adostutakoa herri galdeketa bidez berretsi beharko da, eta udalak erabakitakoa berretsiko du". Urrizak azaldu digunez, galdeketa San Juan festen aurretik litzateke.

Auzolanari buruzko parte-hartze dinamika hori egin ahal iza-

teko Bakaikuko Udalak Sakana-ko Garapen Agentziaren laguntza izanen du. Gainera, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza ere jaso du udalak. Urriza alkateak gogorarazi duenez, bai biharko baita maiatzaren 18ko bi saioak "herri guztiari zabalik" daude. Alkateak gaztigatu duenez, "beharrezkoak dira herrian bizigarenon ikuspegi desberdinak", horrela erabakia aberatsagoa izanen dela uste baitu. Horregatik, auzolanari buruzko saioetan parte hartzeko gonbidapena egin dute udaletik.

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OGITEGIA

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

ALTSASU / 948 562 205 / 673 821 346 / Ondarria Poligonoa - 6. Pab

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

🍞 | 🍰

ALTSASU
678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48
948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAI
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

VITORIA-GASTEIZ
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI ARANATZ
948 461 660
• Kale Naguasía, 4

Altsasuarrak maiatzaren etorrera ospatzera

Altsasuko Alde Zaharreko Euskal Festa bihar eta artisau azoka igandean izanen dira. Baina gaurtik asteburu beteko eskaintza dago. Larunbat eguerditik gauerdia arte Gartzia Ximenez kalearen udaletxe ingurua oinezkoendako izanen da

ALTSASU

Altsasuko lehen asteburuarekin batera heldu da Alde Zaharreko Euskal Festa. Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) 18. urtez antolatu du ospakizuna. Haren atariko egitaraua aletzen joan dira astean zehar. Astelehenean, has-teko, asanblada egin zuten. Asteartean zaintzari buruzko hitzaldia eman zuen Itaian elkarteak. Atzo, berriz, euskararen egoerari buruzko dokumentala ikusteko aukera izan zen gaztetxean. Eta gaurko eta etziko egitaraua bete prestatu dute AGAkoek.

Asteburuko eskaintza borobiltzen du udalaren egitarauak. Dantza ikuskizuna gaurkoan. Bihar haur eta gazteendako aisialdi gunea antolatu du plazan. Eta musika eskaintza bikoitza kultur gunean eta plazan. Asteburua borobilduko du domeka goizeko artisau azokak. 26 artisau lanean ikusteko aukera izanen da.

Errepika

Gaurko 12:00etatik eta irailaren 14ra arte, maiatzeko gurutzetik irailekora, Altsasuko eguerdiek ezkiek jotako sintonia izanen dute. Ezkila errepika jotzeko ohitura izpiritua gaiztoak uxatzeko "konjuroa" omen da. Nekazaritzatik industria gizartea izate-



Igande goizean 26 artisau postu elkartuko dira Altsasan. ARTXIBOA

ra pasa zenean, XX. mendean desagertu zen Altsasan eta Enrike Zelaiak 70. hamarkadan berreskuratu zuen.

Festetan euskaraz hitz egiteko

Egunerokoan, festa egun batean, euskaraz hitz egiteko gonbidapena egin asmoz, Mintzodromoa antolatu da bihar 12:00etarako, plazan. Hitzordu berezia izanen da AEK-ko ikasleak eta Mintzalkide programan parte hartzen ari diren sakandarrek parte hartuko dutelako. Haiek aukera izanen dute Euskaraldian zehar

topo egin zuten Belarriprest edo Ahobizi harrekin berriro ere euskara praktikatzeko. Baina nahi duenak parte hartzeko aukera duenez, nork bere euskaldunen sarea zabaldu eta euskaldun gehiago ezagutzeko aukera aparta ere bada.

Euskaldunen arteko saretze hori egiten den bitartean, hurrendako tailerra izanen da. Beraz, guraso direnek ez dute inolako aitzakiarik parte hartzeko. Kidam magoaren emanaldi ibiltaria izanen da ere. Batzuk bazkarian segitzeko asmoa dute.

OSTIRALA 3

17:00 Haurren txokua, plazan.
18:00 Txokolate-jana, plazan.
19:00 Maravillas herriarentzat!
20:00 Irantz Gontzalez Dantza Akademiako ikasleen eskutik lortia zabalgunean.
20:30 Pintxo-potia, gaztetxien.
22:30 AGA caigo, gaztetxien.

LARUNBATA 4

12:00 eLe Festa: Mintzodromoa, hurrendako tailerrak eta auzatea, Foru plazan.
12:00 Auzatia eta trikipoteua.
12:00 Altsasuko erraldoi eta buruhandien kalejira, lortiatik.
13:00 Herri apostua, plazan.
14:30 Bazkaria.
16:30 Malababa txaranga.
17:00-19:00 Ludoteka eta gaztetxokoa plazara!
17:30 V. Bikotekako pilota goxua txapelketako finalak.
19:00-21:00 Josketa, lantzeria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxea eraikinen.
19:30 Golden Gran Selección kontzertua, lortia Kultur Gunean.
20:00-22:00 Dantzaldia Orots taldearekin, Foru plazan.
21:30 Magrak, gaztetxien.
22:00 Erromeia, gaztetxien.
00:00-02:00 Dantzaldia Orots taldearekin, Foru plazan.

IGANDEA 5

09:00 Dianak Zangitu fanfarrearekin, Alde Zaharrean.
10:30-14:30 Artisau azoka eta taloak, Foru plazan.
11:00-14:30 Josketa, lantzeria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxean.
13:30 Bildotsaren zozketa.
18:00 Altsasuko musika eta Dantza eskolaren kontzertua, lortia zabalgunean.

Bigarren Euskaraldirako motorra prestatzen

2020ko udazkenean izanen da. Pertsonen aparte entitateek parte har dezakete

SAKANA

Herritarren euskararen erabilera areagotzeko sekula egin den ariketarik handiena izan zen Euskaraldia. Haren antolatzaileek jakinarazi dute bi urtetik behin egingen dutela, Korrikarik ez dagoen urteetan. Heldu den urtean pertsonen aparte entitateek parte hartzeko aukera izanen dute (erakunde publikoak; lantegiak; ikastetxeak, gizarte-, kirol-, kultur-erakundeak; merkataritza eta ikastetxeak). Antolatzaileen iritziz pertsonen halako entitateekin ezinbesteko harremana dute eta hizkuntzaren sustapenean aparteko garrantzia aitortzen diete.

Horiek horrela, Sakanako euskalgintzako hainbat kide dagoeneko hasi dira bigarren Euskaraldia prestatzen. Aurrenekoan parte hartutako hamabost bat sakandarrek Euskaraldiari buruzko argibide saioan parte hartu zuten astelehenean. Hobetze-koak eta ongi egindakoak zerrendatuta aurrera begira jarri eta kronograma prestatzen hasi dira. Sakandarrei taldeetan sartzeko eskatu diete. Hurrengo hitzordua Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campuseko Karlos Santamaria eraikinean izanen da, garagartzaroaren lean.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ALTSASU Gerra hemen hasten da dokumentalaren emanaldia eta hitzaldia. Sakana Harrera Harana. 18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Brotxeak egiteko tailerra. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Maravillas gaztetxearen aldeko manifestazioa. 19:00etan, plazatik.

IRURTZUN Kirol jardunaldiak. Mendiko eskia Norvegiako Fiordoetan proiektzioa eta solasaldia Ipe Lizarragarekin. 19:30etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Identidad borrada filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 4

SATRUSTEGI Historiaz beteriko Aralkilgo XI. Mendi Martxa Jokin Lanz historialarekin. 09:00etan, plazatik.

BAKAIKU Auzolanaren prozesu

IRURTZUN Txirindularitzaren historia Irurtzunen 1969-1989 argazki erakusketa. Maiatzaren 3tik 11ra. 09:00etatik 19:00etara, Barazkigune karpan.

parte hartzailea. 11:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda. Gazte txokoa plazara. 17:00etatik 19:00etara, Foru plazan.

ETXARRI ARANATZ Drag-e Uraren bila Logela multimedia konpainiaren ikuskizuna. 17:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Golden Apple Quartet taldearen Gran seleccioni ikuskizuna. 19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 5

LAKUNTZA Familiendako irteera Zabalarteren eskutik. 08:00etan, plazan.

IRURTZUN Cabaret Paranormal antzezlanaren emanaldia. 19:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Identidad borrada filma. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ASTELEHENA 6

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 7

ARBIZU Hezkuntza plaza hutsean mahai-ingurua. 18:00etan, udaletxean.

ALTSASU Kurdistan, gerratik haratago erakusketa. Maiatzaren 12ra arte. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortian.

ALTSASU Kurdistan gerratik haratago hitzaldia. Hizlaria: Kurdistanen egondako brigadista. 18:30etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 8

IRURTZUN Olias Racing Team eta Arakil Motorsport eskuderiaren lehiaketako motorren eta autoen erakusketa. 16:00etatik 20:30era, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Berrebiltzearen artea. Arropari bigarren aukera emateko tailerra. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU #ExpolioGara hitzaldia. Hizlaria: Martxelo Diaz. 19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Kirol jardunaldiak. Motoziklismoa eta automobilismoa Irurtzunen eta Arakilen bideoen proiektzioa eta mahai ingurua. Hizlariak: Juan Mari Olias eta Garikoitz Goñi. 19:30etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 9

ALTSASU Brigade loco eta Rudepride taldeen kontzertua. 20:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Kirol jardunaldiak. 30 urte Sakanako Ibilaldia egin zenetik proiektzioa eta solasaldia Iratxo elkartearen mendi-sailaren eskutik. 19:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Gracias a Dios gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Maiatzaren 10era arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, liburategian.

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Emozio-adimen tailerra: erresilentzia, ohitura osasun-garriak, estresaren kudeaketa eta beste landuko dira Leticia Graces Larrearekin maiatzaren 27an, 29an eta garagar-tzaroaren 3an, 17:00etatik 18:30era. Emakumeendako tailerra da. Arkailgo Udalak antolatuta. Maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena udaletxean, 948 500 101, 634 584 223 edo arakilkultura@gmail.com.

Arropari bigarren aukera emateko: berrebiltzearen artea irakatsiko dute: eskuz eta makinaz josten ikasi, norberaren josteko makina martxan jarri, erabiltzen ez diren arrokekin diseinu berriak egin, patch work teknika... Etxarri Aranzko Udalak antolatutako ikastaroa. Maiatzeko asteazketan, 17:00etatik 19:00etara, kultur etxean. 10 pertsonendako tokia dago. Izen ematea, aste-gunetan bulego ordutegian, udaletxeko bulegoan, 948 460 004 telefonon edo zerbizuzak@etxarriaranatz.eus e-postan.

Zure memoria aktibatuz: norberaren esperientzietatik abiatuta, egoera errealetan oinarritutako praktikekin. Marian Zestauk eman du ikastaroa maiatzaren 13an eta 20an, 17:00etatik 19:30era. Emakumeendako tailerra da, Arkailgo Udalak antolatuta. Maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena udaletxean, 948 500 101, 634 584 223 edo arakilkultura@gmail.com.

OHARRAK
Odol-emateak Irurtzunen: Maiatzaren 15ean, 16:45etik 20:30era, www.adona.es
Etxarriko irakurle taldea: ekainaren 6an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta Paul Auster-en *Sunset Park* liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude.
Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbazuarraren erronkan parte hartzeri gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabaraino mendia lasterketa eta gazta trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>. iragarkiaburak.eus

ZORION AGURRAK



Ainet Lazkoz Ginea Zorionak guapisimo! Larunbatean 9 urte beteko dituzu. Egun ona pasa eta muxu pila bat aitabo, Haitz Lizarragakuek eta amiñen partez.



Teodoro Zorionak aitona! Ondo pasa eguna! Askok maite zaitugu, muxu pila!! Ane eta Miren

JAIOTZAK

- **Leo Erbiti Agirre**, apirilaren 19an Egierretan
- **Iratzi Larzabal Pagola**, apirilaren 27an Altsasun

EZKONTZAK

- **Arturo Galarza Cambra eta Maria Victoria Mariñelarena Oiz**, apirilaren 13an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Francisca Ruiz Lazaro**, martxoaren 21ean Altsasun
- **Luciano Txueka Arbeloa**, apirilaren 10ean Arbuzun
- **Antonio Zubikoa San Martin**, apirilaren 19an Olaztin
- **Monna Hal-La Sidahmed**, apirilaren 21ean Olaztin
- **Maria Antonia Moreno Lopez**, apirilaren 21ean Irurtzunen
- **Maite Berastegi Astiz**, apirilaren 24an Arbuzun
- **Arantxa Goldarazena Betelu**, apirilaren 24an Uharte Arakilen
- **Joxe Mari Mercero Lizarraga**, apirilaren 25ean Unanun
- **Joaquina Navarro Lakuntza**, apirilaren 27an Lizarragan

OROIGARRIA



**Anttoni Aldasoro
Milagros Artieda
Jose Ramon Anso
Jorge Ijurko
Iñaki Orce**

Beti gogoan

Etxarri Aranazko 1959ko kintoak



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Fax: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860



ESKELA

Arane Iturbe Iglesias

5 urteko opari zoragarri bat izan zara,
ezerk berdindu ezin duena.
Gurekin egongo zara betiko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu babesa,
ardura zein maitasuna erakutsi dizkiguzuen guztioi.

Erkuden, Eneko, Saioa eta etxeko denak



ESKELA

Arane Iturbe Iglesias

"Abestia amaitu da, baina,
melodiak gure bihotzean
jarraituko du betiko"

Maite zaitugu

Vergara familia



OROIGARRIA



Rexu Iturrioz Gastesi

I. urteurrena

Zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Teilaia baserria
(Urdiain)

ESKELA



Jose Mari Mercero Lizarraga

Beti gogoan izango dugu gureganako
izan duzun goxotasun eta borondatea

Hain maite izan zaituen zure familiaren partez,
muxu haundi bat

Kalekoa etxea
(Unanu)




IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELA



Nire joste andereñoi:
beti izango zaituztet gogoan

ESKELA



Miren Maite Berastegi Astiz

Gogoan zaitugu

Aralar taberna
Arbizu



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 🐦 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🖱 www.tanatoriosirache.es

Altsasuko Bikotekako Goxua finalak bihar jokoan

PILOTA Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Burunda pilotalekuan, lau final jokatu dira guztira

Altsasuko Gazte Asanbladak Bikotekako V. Pilota Goxua Txapelketa antolatu du. Txapelketa otsailean hasi zen, onenek aurrera egin dute eta Altsasuko Alde Zaharreko festetan finalak jokatu dira, hain zuzen ere bihar, 17:00etatik aurrera, Burunda pilotalekuan. Guztira lau final egonen dira jokoan.

Finalak

Altsasuko V. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak, larunbatean, 17:00etan, Burundan

Finalak

- **2. maila** Lizarraga-Iragi / Iregi-Iregi
- **Banakakoa** Mitxaus / Senar
- **Neskak** Berastegi-Igoa / Zabala-Mazkiaran
- **1. maila** Mazkiaran-Alustiza / Zubiria-Garziandia

PILOTA Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketa Irurtzunen

Afizionatuen mailako puntako pilotariak parte hartzen ari dira XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo Pilota Txapelketan. Baina txapelketa horrekin batera, Biaizpek emakumezkoen pilota txapelketa antolatu du lehenengoz, I. Domingo Nagore Memoriale, hain zuzen.

Larunbatean, gizezkoen txapelketan, Aznarezi eta Mateori 12 eta 22 irabazi zieten Adonisek eta Arangurennek eta Olanok eta Minak 22 eta 17 irabazi zieten Armendarizi eta Elizegiri. Emakumezkoetan, Aldaregiari 17 eta 18 irabazi zion Bergarak eta Ruiz de Larramenditarren arteko lehian, Maitek 18 eta 15 hartu zuen mendean Olatz.

"Jaka arriskutsua da, baina txisparekin nago"

JOSEBA EZKURDIA PILOTARIA

PILOTA Buruz Buruko final laurdenetan Erik Jaka izango du aurkari Joseba Ezkurdiak bihar Labriten (17:45, ETB1). Erronka zaila, baina konfiantzarekin dagoela aitortu digu

Maidar Betelu ARBIZU

Bihar, larunbatean, Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak Iruñeko Bomboneran Buruz Buruko final laurdenetarako partida jokatu da. Asteartean material aukeraketa egin zuten, eta materialarekin konforme, partidarako gogotsu eta ilusioarekin daudela aitortu zuten.

Ikusmina handia da. Printzipioz, Joseba Ezkurdia da faborittoa. Aurreko urtean Buruz Buruko final zortzirenetan Erik Jakaren kontra aritzea egokitu zitzaion ere arbizuarrari, eta 22 eta 15 gailendu zen arbizuarra. Aurten, ordea, ez da hain erraza izango, Jakak koska bat gora egin baitu, oso erregularra dagoelako eta Buruz Buruko final zortzirenetan Artola 22 eta 20 irabaztetik datorrelako. Partida zaila izango dela onartu zuten biek, eta dena emango dute, Buruz Buruko finalerdietako txapel preziatua baitago jokoan.

Buruz Buruko beste final laurdenetan, gaur, ostiralean, Altuna III.ak Irribarria izango du aurkari Donostiako Atano III.ean (22:00etan, ETB1), igandean Bengoetxea VI.a Urrutikoetxearen kontra ariko da Bilboko Bizkaia pilotalekuan (17:00etan, ETB1), eta astelehenean, Elezkano II.a eta Peio Etxeberrria Tolosako Beotibarren lehiatuko dira (16:30ean).

Entrenatzera bidean harrapatu zaitugu Joseba.

Bai, azkeneko entrenamenduetan egiten ari naiz. Badakit Jakaren kontrako partida zaila dudala aurretik, aurkari arriskutsua da, baina ea arratsalde on bat ateratzen den eta irabazteko aukera dudana.

Final laurdenetan lehian sartuko zarenez, nahikoa tarte izan duzu Buruz Buruko prestatzeko. Nola ikusten duzu zure burua?

Ongi. Binakako Txapelketako azkeneko jardunalditik hasi nin-



Erik Jaka eta Joseba Ezkurdia astearrean, material aukeraketan. 21GUALES

"JENDEA MUGITZEN DELA IKUSTEA, LABRITERA ZU ANIMATZERA DOALA, HORI DA POLITENA"

tzen fisikoki Buruz Bururako prestatzen. Uste dut momentu onean iristen naizela, igual entrenamenduetan ez naiz ikusten nahi dudana bezala, baina gero partidatan, hango tentsioekin, ongi ikusten naiz, txisparekin, ongi. Horrek konfiantza ematen dit, eta ilusioz eta gogo handiarekin nago larunbata iristeko. Galdu ala irabazi, kantxan dena uzteko asmoarekin nago.

lazko Buruz Burukoan Erik Jaka final zortzirenetan aurkari izan zenuen Altsasun, eta 22 eta 15 irabazi zenion. Baina orduko Jaka eta egungoa ez da berdina. Azkeneko 16 partidetatik 15 irabazi ditu, oso erregular dago eta Buruz Burukoan Artola kanporatetik dator. Zu zara faborito, baina partida zaila aurreikusten da.

Irabazteko aukerak izateko partida serio bat egin beharko dut. Erikek gora egin du, oso eraso-

korra da eta aurten puntu bat gehiagorekin dago. Aurkari arriskutsua da, zaila. Hortaz, partida guztian oso kontzentratua egon beharko dut, partidaren sartua, partidari erritmoa ahalik eta gehien jartzen saiatu beharko naiz eta ea nire lana itxuran egiten dudana, gustura geratzen naizena.

Materialarekin ez zenuten arazorik izan, ez?

Ni gustura geratu nintzen nire pilotekin. Erikek ere esan zidan nire pilota bat asko gustatu zitzaioela. Pilota bat zakarragoa aukeratu nuen, gehiago mugitzea kostatu egiten zaiona, eta beste bat bizixeagoa. Baina esan beharra da lau pilotak ere onak direla, ez dago kezarik.

Berriz ere txapelketan botilerorik gabe.

Bai, hala erabaki dute. Aurreko txapelketa ongi joan zitzaidan botilerorik gabe eta ea honetan ere horrela den.

Dena den, ilara batzuk gorago botilerorik eta lagunak izango dituzu, zu animatzen.

Bai. Koadrilakoak, Arbizuko jendea, inguruetakoa... jende morderoa doala esan didate. Jendea mugitzen dela ikustea, hori da

politena. Oso eskertuta nago, zorionekoa sentitzen naiz. Partida aurretik Juan Martinez de Irujo eta beste prestatzailearekin partida ongi prestatuko dut eta ea arratsalde polita ateratzen den.

Labrit beste festa bat izanen da larunbatean eta zale gehienak alde izanen dituzu. Horrek indarra ematen du?

Labriten jokatzeko gozamina da. Kristoren giroa egoten da eta poztasuna ematen du horrela jokatzeko. Jendea zure alde dagoenean beste plus bat da, beste indar bat ematen dizu eta dena beharko dut larunbateko partida irabazteko. Etxean gertu jokatzeko dudanean motibazio gehiagorekin, gusturago jokatzeko dute.

Buruz buruko aurkezpenetan esan zenuten aurtengoa ez zela faboritoen txapelketa, hautagai askokoa baino.

Lehen, Juan eta Aimar zeudenean, beraiek ziren beti faboritoak. Epoka bat markatu zuten. Orain, txapelketa honetan behintzat, faborito gutxi eta hautagai asko gaude. Hori pilotarentzat ona da, txapela hartzeko izen bat baino gehiago egotea.

Binakako txapela baduzu, lau t'erdikoa ere eta Buruz Buruko falta zaizu. Apalategian tokia egin duzu?

Toki nahikotxo dago, hori ez da arazorik izango (kar, kar...). Bi txapel ditut, biak irabazteko zorte hori izan dut, eta orain beste txapelketa polit bat dut aurretik eta ilusioz nago. Buruz Buruko txapelketa berezia da, pilotariei gehien markatzen diguna. Gauzak ongi ateratzea nahi nuke, badakigu oso zaila dela, baina aurten edo beste urte batean gustatuko litzaidake hiru txapela horiek izatea, nahiz eta oso zaila izan.

Bakaikoa kanpo

Joanes Bakaikoak lehen mailako Buruz Burukoan debutatu zuen, final hamaseirenetan, apirilaren 20an Victorren kontra Ezkarain jokatuako partidaren. Ongi hasi zen, baina Victor geldiezina izan zen eta 22 eta 13 irabazi zion etxarriarrari.



Osasuna Magna Xotako jokalariek zaleei eskerrak ematen, Levanteren kontrako partida bukatu eta gero. XOTA

Osasuna Magnak 3. postuan bukatu du liga

ARETO FUTBOLA Ligako 3. postu horri esker, play-offetako final laurdenetan Jaen Paraisoren kontra kantxa faktorea alde izango du Imanol Arregiren taldeak. Hirugarrena izateaz gain, etxean ligako talderik onena izan da talde berdea

Osasuna Magna Xotak historia egiten jarraitzen du. Larunbatean, ligako 30. eta azken jardunaldian Levanteri 4 eta 1 irabazi zion talde berdeak, Dani Saldisek, Araçak, Rafa Usinek eta Bynhok sartutako golekin. Garaipen horri esker, Lehen Mailako 2018/2019 liga hirugarren postuan bukatu du Imanol Arregiren taldeak. Barça Lassa izan da liderra (67 puntu), El Pozo Murcia bigarrena (62 puntu) eta Osasuna Magna Xota hirugarrena (59 puntu). Horretaz gain, etxean ligako talde onena izan da talde berdea.

Imanol Arregi lortutakoarekin pozez zorutzen zegoen. "Hau ikusgarria da. Aurtengo liga erregularra sekulakoa izan da.

Ez dakit beste 3. postu bat lortzeko aukera izango dugun; hor-taz, ospa dezagun" zioen.

Gogoratu beharra dago liga hasiera nahiko kaxkarra izan zuela Osasuna Magnak, eta egoerari buelta ematea handia izan da. "Hirugarren postu hau justua da, jokariendako saria, beraiek baitira honen guztiaren ardura-dun nagusiak. Orain pastelari ginda jartzea tokatzen zaigu" gaineratu zuen Imanol Arregik.

Play-offetan Jaen aurkari

Ligan lehen zortzi postuetan sailkatu diren taldeak ariko dira Lehen Mailako Areto Futboleko Ligako titulua erabakitzeko play-offetan: Barça Lassa, El Pozo

Murcia, Osasuna Magna Xota, Movistar Inter, Palma Futsal, Jaen Paraiso Interior, Aspil Vidal Ribera Navarra eta Levante. Hirugarren postuan sailkatzeari esker, Jaen Paraiso Interior taldearen kontra play-offetako final laurdenetan kantxa faktorea alde izango du Osasuna Magna Xotak. "Jaen arerio gogorra da, baina egia esan, edozeinek irabazi ditzake play-offak" adierazi zuen Imanolek.

Play-offetako final laurdenak maiatzaren 11tik 19ra jokatuko dira, hirupartidetara. Finalerdiak maiatzaren 25etik ekainaren 3an erabakiko dira, formatu berberekin, eta finala 5 partidetara jokatuko da, ekainaren 8tik 22ra.

eta Espainiako Txapelketetan ariko dira Nafarroako Saskibalo selekzio horiek.

Emakumezkoen lehen urteko kadeteen selekzioa osatzeko lan taldera CBASKeko Ane Zubiria deitu dute, gizonetzkoen haurren mailako selekzioa osatzeko lan taldera CBASKeko Atikilt Arretxe eta gizonetzkoen minibasket selekzioa osatzeko lan taldera CBASKeko Johansel O'Neal Ledesma eta Imanol Ramirez. Maiazteko asteburutan izango dira entrenamenduak, Larraonan.

CBASKeko lau jokalariek selekzioaren entrenamenduetara

SASKIBALOA Nafarroako Saskibalo Federazioak antolatutako entrenamendu espezifikoa ariko dira

Nafarroako Saskibalo Federazioak Nafarroako saskibalo selekzioak osatzeko bidean hainbat saskibalo jokalariek deitu dituzte maiatzaren Iruñeko Larrabide kiroldegian entrenamendu espezifikoa egitera, eta tartean

Altsasuko CBASK taldeko lau saskibalo jokalariek daude. Entrenamenduak egin ahala eta neska-mutilen erantzuna ikusita, behin betiko Nafarroako saskibalo selekzioak sartuko ditu federazioak, 12 jokalariek osatutakoak,

SASKIBALOA CBASKek 7. edo 8. postuarekin konformatu beharko du

Autonomia Arteko 2. mailako 2. fasean, Altsasuko CBASK taldea 1 eta 8 postuen arteko ligaxkarako sailkatu zen. Fase horretan, final laurdenak, finalerdiak eta finala jokatzen dira. Final laurdenetan, CBASK taldeari Iruñeko San Ignacioren kontra aritzea tokatu zitzaion, hain zuzen ere lehen faseko liga erregularrean lehen postuan sailkatu zen taldeari. Hiru partidetara jokatuko zen final laurdena. Lehen partida San Ignaciok irabazi zuen, bigarrena CBASKek, eta berdinketa hausteko hirugarren partida larunbatean jokatuko zuten bi taldeek, Iruñeko San Ignacio kiroldegian. Partida oso estuan, azkenean San Ignaciok irabazi zion CBASK taldeari, 60 eta 45, eta, hortaz, San Ignacio sailkatuko da finalerdietarako.

CBASK taldeak ligako 7. eta 8. postua erabakitzeko partida jokatuko du maiatzaren 11n Larraona A taldearen kontra, larunbatekin, Altsasuko Zelandik kiroldegian 18:00etatik aurrera jokatuko den partidaren. Ea Autonomia Arteko 2. mailan 7. postuan sailkatzea lortzen duten saskibalo jokalariek altsasuarrek.



SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINEN PARTIDUAK

IGANDEAN ZIORDIAN

10:00 Aralar Mendi - Urdiain

10:50 Suteqi A - Altsasu A

11:40 Altsasu C - Betelu

12:30 Suteqi 1 - Altsasu B

13:20 Etxarri Aranatz 1 - Etxarri A. A

KIMUEN PARTIDUAK

IGANDEAN LAKUNTZAN

10:00 Tipi Tapa - Lagun Artea 08

10:50 Lagun Artea 07 - Etxarri Aranatz A

12:30 Urdiain - Etxarri Aranatz 1

Sakanako Futbol Topaketak bueltan Igandean, kimuen 15. jardunaldia jokatuko da Ziordian, eta, bestetik, Lakuntzak benjaminen 10. jardunaldia hartuko du.

FUTBOL PREFERENTEA

28. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Itaroa Huarte 1-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades 55
13 Etxarri Aranatz 34

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Pamplona - Etxarri (Iruñea)

Etxarri Aranatz, mailari eusten

Etxarri Aranatzek Itaroa Huarte hartu zuen. Lehen zatian etxekoak izan ziren onenak eta Xabatek Etxarri aurreratu zuen, baina 2. zatia hasi eta berehala berdintzea lortu zuen Itarok. Bihar azkena den Pamplona izango dute aurkari, eta puntuak lortzen saiatuko dira biak.

FUTBOL ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Univ. Navarra 3-2

Ardoi B - Altsasu 3-1

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1 Ardoi 22
2 Lagun Artea 15
7 Altsasu 6

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Altsasu - Lagun Artea (Dantzaleku)

Lagun eta Altsasuren derbia

Universidad de Navarrari 3 eta 2 irabazi zion Lagun Arteak Zubiriak, Mendietak eta Yonatanek sartutako golei esker. Aldiz, Christianek Altsasu aurreratu zuen Zizurren, baina Ardoi partidari buelta eman zion eta 3 gol sartu zituen. Bihar, larunbatean, Altsasuren eta Lagun Artearen derbia jokatuko da Dantzalekun.

EMAKUMEEN ERREG.

29. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Ardoi - Altsasu 1-0

30. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Baztan 1-0

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 80
14 Altsasu 25

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:30 Peña Sport - Altsasu (Tafalla)

Altsasuk Baztani irabazi zion

Ardoiren kontra 1 eta 0 galdu zuten Altsasuko neskek, baina Baztanen kontra, etxean, garaipena lortu zuten (1-0). Bihar sailkapenean laugarrena den Peña Sport izango dute aurkari.



Txondorraren dokumentala mustuko dute.

Historiaz Betetako XI. Arakilgo Mendi Martxa, bihar

MENDIA 9:00etan abiatuko da, Satrustegitik. Ondoren bazkaria eta dokumentala izango dira

Historiaz Betetako XI. Arakilgo Mendi Martxa antolatu du Arakilgo Udalak, bihar, larunbatean. Goizeko 9:00etan abiatuko dira mendizaleak, Satrustegitik. Berama, Beorkozulo, Zuhatzuko muga, Martijaren borda, Itumuttu iturria, Arruteko harkaitzak, Zuhatzuko lautadak eta Satrustegiko lursailak gaitu eta gero, Satrustegira iritsiko dira. Ibilbidean barna azalpenak emango ditu Jokin Lanz historialariak.

Ondoren, bazkaltzera bilduko dira Astamendi elkartean. 18:00etan, Irune Martinezek eta Aitor Abregok Satrustegiko txondorrari buruz landutako film laburra aurkeztuko dute.

IRRIKAKETA Ioseba Fernandezek ez zuen errekorra hobetu

Asteazkenean Txantreako Irristaketa Trofeoa jokatu zen. Berritutako pista probatzeko primerako aitzakia izan zuten irristariarik. Ioseba Fernandez iturmendiarrak abiadazko bueltako errekorra gaintzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. "Pista lehiaketan probatu beharra zegoen. Sekulakoa da, denbora oso onak egin ditugu" azaldu zuen.



Iskiza Sakanako lehiaketa taldeko gimnastak. ISKIZA SAKANA

250 gimnasta bilduko dira bihar Altsasun

GIMNASIA ERRITMIKOA Zelandi kiroldegiak Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa hartuko du bihar, larunbatean, goizeko 10:00etatik 18:00etara. 15 klubetako 50 talde lehiatuko dira, tartean Iskiza Sakanako 2 talde

Altsasu ekitaldiz betea egongo da asteburuan. Alde Zaharreko festei, puntako kirol ekitaldi bat gehitu behar zaio. Izan ere, bihar, larunbatean, Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu da Zelandi kiroldegian, Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarria. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara 250 gimnasta baino gehiago lanean ikusteko aukera izango da Zelandin. Nafarroako 17 klubetako 50 talde lehiatuko dira, tartean Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko klubeko bi talde.

Iskiza Sakanako Olaia Agirre monitoriak adierazi digu ikasturte osoa daramatela biharko txapelketa prestatzen. "Asko prestatu dugu txapelketa, ia denboraldi osoa. Ea ahalik eta lan onena egiten dugun eta etxean aritzeak laguntzen digun". Iskiza Sakanan guztira 50 gimnasta inguru trebatzen dira. Horietatik 29 eskola mailan, Irati Begiristain eta Eider Goikoetxea monitree-

kin, eta 20 gimnasta lehiaketa edo konpetizio mailan, Olaia Granizo, Olaia Agirre eta Maria Remolinarekin. "Aurten iguera egon da, neskatila askok eman dute izena Iskizako eskolan" nabarmendu du Agirrek.

17 taldeak

Nafarroako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan maila

oso altua egongo omen da. Espainia mailan sekulakoa maila duen Eguesibarko Alaia klubak aurkeztuko dituen taldeak eta Lagunak klubeko taldeak ariko dira lanean, beste klub batzuetako taldeekin batera: Iskiza Sakana, Barañain, Antsoain, Tafalla, Tuter, Funes, Club Natación Pamplona, Larraona, Uharte, Shogun, Ibaialde, Men-

dialdea, Arrotxapea, Txantrea eta Anaitasuna.

Esan bezala, klub hauetako 50 talde ariko dira lanean. "Pilota, mazak, zinta, uztia, soka... aparatu guztiekin ariko dira lanean gimnastak. Txikienak esku libretan ariko dira, aparatuekin gabe. Koreografia ederrak prestatu dituzte eta ziur ikusgarria izango dela" azpimarratu du Olaia Agirrek. Iskiza Sakanatik hiru talde aritu behar zuten: kimuen mailakoa (4. mailan lehiatzen dira), haurren mailakoa (3. mailan lehiatzen dira) eta kadeteen mailakoa, baina azken talde honek ezingo du aritu, azken orduko ezbehar batengatik.

Zelandiko ateak zabal-zabalik egongo dira eta halako ikuskizuna zuzenean ikusteko aukera horren eskura izatea ez da, beraz, txantxetako. Izan ere, tamainako ikuskizuna Altsasun ez da aspalditik ikusi. "10 urte baino gehiago pasa dira Altsasuk Nafarroako Txapelketa bat hartu zuenetik" dio Agirrek. Eta puntako gimnastak koreografia ikusgarriak egiten ikustera gonbidatu gaitu.



Gimnasta gaztetxoak. ISKIZA SAKANA

Txartela erakutsiz, ateak irekiz,
euskara zabalduz, bertako komertzioak bultzatuz,
informazioa trukatur, Sakana maitatu!!



GUAIXEREN
ATAL EZBERDINETAN
DESKONTUAK



KIDE DIREN
KOMERTZIOETAN
ABANTAILAK



GUAIXEA
ZURE ETXEO
BUZOIAN



HILABETERO
ZOKKETAK
ETA OPARIK



Berriain gainean lainoa eta San Migel gainean hotza eta tarteka txiri-miria izan zuten mendizaleek. Argazki galeria: guaix.eus.

1.363 mendizale Sakanako Ibilaldian

MENDIA Iratxok antolatutako Sakanako Ibilaldiak 30 edizio bete zituen larunbatean eta parte-hartze errekorra izan zuen. Lehenengoz, mendizale gehiagok Ibilbide Motza aukeratu zuten Ibilbide Luzea baino. Irurtzundarrek Pello Alzuetara gogoan izan zuten

Larunbata fresko esnatu zen, baina goizean goiz altxatu, Irurtzuna hurbildu eta guztira 1.363 mendizalek hartu zuten parte Iratxo elkarteak antolatutako 30. Sakanako Ibilaldian. Data boro-bila zen, 30. edizioa, eta data borobil horrek parte-hartze errekorra ekarri zuen: 1.416 zeuden izena emanda, eta horietatik 1.363 mendizalek osatu zuten

martxa. Aurreko urtean baino 200 mendizale gehiago aritu ziren Iratxoko mendi martxa ez lehiakorrean.

Hiru ibilbide ditu Sakanako Ibilaldiak: Ibilbide Luzea (54 km, 3.388 m desnibela, San Donato, San Migel eta Trinitatea batzen dituen), Ibilbide Motza (25,5 km, 1.440 m desnibela, Egiarreta, Madotz, Larrazpil eta Trinitatea

tea batzen dituen), eta Ibilbide Txikia (14 km, 736 m desnibela, Trinitatea, Latasa eta Arrantzaleen xenda batzen dituen). Ibilaldi Luzea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituan sartua dago eta Ibilbide Txikia Nafarroako Txapelketarako baliagarria zen. Orain arte mendiza-

le gehienek ibilbide luzeana aukeratu zuten, baina aurten, lehen aldiz, Ibilbide Motza aukeratu zuten gehienek, 560 mendizalek. Ibilbide Luzea, 3 ermitak batzen dituen, 488 mendizalek aukeratu zuten eta Ibilbide Txikian, familian egitekoan, 315 mendizalek osatu zuten. Beraz, mendiak badu etorkizuna.

Aurten Manolo Morenok koordinatu zuen Sakanako Ibilaldia. Iaz zendutako Pello Alzuetaren tokia hartu zuten Morenok eta Iratxoko gainontzeko kideek, baina joandako laguna alboan sentitu nahi izan zuten irurtzundarrek eta bere argazki erraldoi bat jarri zuten Irurtzungo plazan, helmugan.

Mendian ibiltzeko eguraldi ideala zen larunbatekoa: freskoa eta tarteka txiri-miria. Ibilbide luzea egiteko 11-12 ordu behar izaten dira, baina ibilbidea korrika egin zuen lehenak, Uharte Arakilgo korrikalari ezagun batek, 6 ordu eta erditan egin zuen buelta. Dena den, mendi martxa ez lehiakorra dela nabarmendu zuten Iratxokoek.

Beste behin, mendizaleen festa izan zen Sakanako Ibilaldia, eta ibilbidearen edertasuna eta antolakuntza bikaina nabarmendu zuten parte-hartzaileek. Guztia bikain ateratzeko 60 pertsona baino gehiago aritu ziren lanean, eta antolakuntzatik aipatu zuteenez, ez zen ezohiko arazorik egon, bihurrituren bat eta aparteko ezer gehiago.

Nafarroa Xtrem: Lopez eta Ganboa bikain

MENDI LASTERKETAK 68

km-ko proba luzean Lopez 45.a sailkatu zen eta 33 km-koan Ganboa 15.a

Larunbatean 1.200 korrikalarik baino gehiagok parte hartu zuten Zubiriko Nafarroa Xtrem (NX) mendi lasterketan. Proba gogorrena NX68K izan zen (68 km eta 4.000 m desnibel +). Guadalajarako Sergio Tejerok eta Salamanca Alvaro Ramosek elkarrekin egin zuten ibilbidea eta aurreko errekorra apurtu zuten. Tejero izan zen lehena (7:04:06) eta Ramos bigarrena, denbora berean. Emakumezkoetan Abadiñoko Silvia Trigueros gailendu zen (8:48:36). Jose Julian Lopez altsasuarra 45.a iritsi zen helmugara (8:53:22).

NX33K proban (33 km eta 1.890 metroko desnibel +) Imanol Larrañaga (2:50:15) eta Amaia Amanategi (3:20:39) gailendu ziren. Aritz Ganboa arruazuarra 15.a iritsi zen helmugara (3:10:04). Bikotekako sailkapenean Jokin Bereziartu eta Javier Gasanz laugarrenak sailkatu ziren (3:30:35) eta Arkaitz Munarriz eta Ioana Lopez 20.ak (4:25:41).

Sakanako Herri Kirol Eguna igandean izanen da Arruazun

HERRI KIROLAK Mank-ek antolatuta, igandean izanen da, 11:30ean, Arruazun. Eta euria egiten badu Lakuntzan

Sakanako Mankomunitateak Sakanako Herri Kirol Eguna antolatu du igandean, maiatzaren 5ean, Arruazun.

Lehen abenduan izaten zen Sakanako Herri Kirol Eguna, baina data kontuengatik aurreko urtean maiatzean egin zen, Lakuntzan, eta Sakanako herri kirolarien festa udaberriantolatzen jarraitzea erabaki du Mank-ek. Esan bezala, aurten Arruazun izanen da, igandean, 11:30ean, baina euria egiten badu Lakuntzako pilotalekura lekualdatuko da ekitaldia.

Partaideak

Sakanako Mankomunitateak sustatzen duen Sakanako Aizkora Eskolan Juanito eta Migel Angel Erdoziaren aginduetara trebatzen diren 13 aizkolarik inguruk hartuko dute parte Arruazuko Herri Kirol Egunean. Haiekin batera, Mank-eko Sakanako herri jasotze eskola eta zentro teknikoan Mikel Lasarterekin trebatzen diren 3 harri jasotzaile ariko dira lanean.

Horretaz gain, zortzi aizkolarik hartuko dute parte: Arkaitz Jaurregi, Eloy Corchero, Juanjo Er-



Aurreko urtean Lakuntzako plazan izan zen Sakanako Herri Kirol Eguna.

dozia, Goizeder Beltza, Jaime eta Iker Gorriti aita-semeak, Juanjo Lopez eta Angel Eraso aizkolariek.

Bukatzeko, Andra Mari ikastolako 2 trontzalari bikotek eta Iñigo Aritza ikastolako bikotek

trontza erakustaldia egingo dute Arruazun, eta antolakuntzak azken orduko herri kiroltako beste erakustaldiren bat ere egotea ez du ukatzen. Urtero herri ezberdinean egiten da Sakanako herri kirolarien festa.

Sakandarrak

Sakandarren denborak Nafarroa Xtrem Mendi Lasterketan

68 km (4.000 m +)
1. Sergio Tejero (Guadalajara) 7:04:06
45. Jose Julian Lopez (Alts.) 8:53:22
317. Ruben Garcia (Alts.) 13:18:43

33 km (1.890 m +)
1. Imanol Larrañaga (Azkoitia) 2:50:15
15. Aritz Ganboa (Arru.) 3:10:04
31. Aritz Munarriz (Etx.) 3:22:14
45. Jokin Bereziartu (Alts.) 3:30:35
46. Javier Gasanz (Alts.) 3:30:35
55. Mikel Satrustegi (Arru.) 3:34:06
145. Ibon Ubeda (Etx.) 3:59:45
226. Arkaitz Munarriz (Etx.) 4:25:41
227. Ioana Lopez (Etx.) 4:25:42
319. Juan Carlos Cano (Alts.) 5:04:00



Irurtzango Kirol Jardunaldietan Fiordoetan izandako abenturaz ariko da Lizarraga.

Irurtzango Kirol Jardunaldiei gaur emanen zaie hasiera

KIROLDEGIA Ipe Lizarragaren hitzaldiarekin eta txirrindularitzari buruzko erakusketarekin hasiko dira

Irurtzango Udaleko Kirol Batzordeak, talde eta kolektiboekin batera, Irurtzango Kirol Jardunaldiak antolatu ditu, gaur, ostiralean hasi eta maiatzaren 11n despedituko direnak. Ohiko kirolez gain beste kirol asko badaudela eta kirol horiek Irurtzunen eta Arakilen jarraitzaile asko dituztela argi erakutsi du aurtengo programazioak.

Gaur, Ipe Lizarragaren Norvegia Gaur, ostiralean, hasiko dira Irurtzango Kirol Jardunaldiak. Batetik, gaurtik maiatzaren 11ra bitartean Barazkigune Karpan argazki erakusketa izanen da goizeko 9:00etatik 19:00etara, "1969-1989 Irurtzango txirrindularitzaren historia" jasotzen duena. Eta bestalde, 19:30ean, Ipe Lizarraga mendizale eta eskiatzaileak beste taldekide batzuekin Norvegian burututako egitasmo bati buruzko proiektzioa eta hitzaldia egingen du Irurtzango Kultur Etxean: "Norvegiako Fiordoetan Mendi Eskian". Fiordoetan eskian aritutako abenturez elebitan ariko da Lizarraga.

Olias eta Goñi, asteazkenean Maiatzaren 8an, asteazkenean, motoziklismoak eta automobilismoak izanen dute protagonismoa. Juan Mari Olias motoziklismo pilotuak (Olias Racing Team) eta Garikoitz Goñi automobilismo pilotuak, Arakil Motorsport Eskuderiako presidentek, beraien lehiaketetako motorra eta autoa jarriko dituzte ikusgai Irurtzango Kultur Etxe

parean, 16:00etatik 20:30era. Ibilgailuak gertutik ikusi eta galderak egiteko aukera izanen dute bertatik pasatzen direnek. Ondoren, "Motoziklismoa eta automobilismoa Irurtzunen eta Arakilen" izenburupean, Javier Mariñelarenak gidatuko duen mahai inguruan parte hartuko dute Oliasek eta Goñik, 19:30ean, Kultur Etxean.

Sakanako Ibilaldiak 30 urte bideo aurkezpena, ostegunean Maiatzaren 9an, ostegunean, Iratxo elkarteak izango da protagonista. Sakanako Ibilaldiak 30 urte bete ditu aurtun, hain zuzen ere aurreko larunbatean. Sakanako Ibilaldiaren 30 urte hauek historia jasotzen duen bideo ederra prestatu du Xabi Unanua irurtzundarrak, eta bideoaren proiektzioa egingen dute ostegunean, 19:30ean, Irurtzango Kultur Etxean. 30 urte luze hauetako pasadizoak gogoratzeko parada izanen da bideoaren ondoren egingo den hitzaldian.

La Peluso martxa zikloturista, maiatzaren 11n

Irurtzango Kirol Jardunaldiak despeditzeko, hurrengo larunbatean, maiatzaren 11n, "La Peluso" martxa zikloturista antolatu dute, goizeko 8:30etik aurrera Irurtzango Foru Plazatik abiatuko dena. Martxa burutzen den bitartean Irurtzango plaza ekitaldiz beteko da: zumba eta spinning erakustaldia izango dira, mailloten eta argazkien erakusketa eta beste.

Joxemari Mercero korrikalariak utzi gaitu

ATLETISMOA Unanuko korrikalari beterranoa ostegunean hil zen, 80 urte bete zituen egunean, hain zuzen. Bere aldeko hileta elizkizunak ostiralean izan ziren, Unanun. Bere ibilbideagatik makina bat aitortza eta omenaldi jaso zituen korrikalariak

Joxemari Mercero korrikalari beterrano unanuarra ostegunean hil zen, hain zuzen ere 80 urte bete zituen egunean. 2018an bere azkeneko Behobia-Donostia lasterketa korritu zuen unanuarra, bere 33. Behobia-Donostia hain zuzen ere, eta korrika egiten jarraitzea, hori zen bere nahia, horrela disfrutatzen baitzuen Mercero.

Hamaika lasterketan aritu izan da Beste Iruña taldeko kidea zen korrikalari unanuarra, eta tartean Espainiako pista eta errepide txapelduna izan zen 10 kilometrotan, beterranoetan. Esaterako, iaz, 2018an Espainiako 75 urtetik gorako Espainiako 10 kilometroko errepideko txapelketa irabazi zuen Iurretan, eta aipatu txapelketa horretako txapeldunordea eta hirugarrena ere izan zen sarritan. Aurtun Beteranoen Mundialerako prestatzen ari zen.

Ergoienako Biran, Sakanako Herri Lasterketan eta Sakanan barna antolatutako probetan korrikalari finkoetako bat zen Unanuko korrikalaria. Guaiexek egindako elkarrizketa batean aitortu zuen "haurra nintzenetik ibili naiz hara eta hona korrika. Artzainen familiakoa, beti ibili gara mendian gora eta behera, eta hor hasi ziren nire hastapeak". Gaineratu zuenez, beti aritu zen korrikan, baina ogibidez txoferra zenez, "23 eta 40 urte artean gehiago izan zen afizioa, baina 40 urtetik aurrera hasi nintzen lasterkan gozatzen".

Unanuarra ibilbide luzea egin zuen atletismoan, eta munduan barna jokaturako 9 maratointan parte hartu zuen, tartean New Yorken, Parisen, Londonen, Pragan... eta baita hurbilagokoetan ere. "Maratoiak, maratoi-erdiak, herri lasterketak... denak ditut gustuko. Urrea, zilarra eta brontzea lortu ditut, eta baita ere atzeragoko postuak egin izan ditut, baina beti pozik" aipatu



Mercerori Tritoiena lasterketan egindako omenaldia.

"OSASUNA DUDAN BITARTEAN KORRIKAN ARITZEA DA NIRE ERRONKA" ESATEN ZUEN MERCEROK

zigun. 72 urterekin maratoiak utzi egin zituen, eta ordutik herri lasterketetan murgildu zen buru-belarri.

2018. urteko Ergoienako Biran huts egin zuen, beste klasiko batean, Iruñeko San Fermin Txikitotako "Cross de los Carrozas" proba ezagunean parte hartzen ari zelako. Probako 38. edizioa zen, eta Joxemari Mercero izan zen azkarrena. Festetako zapia, txapela eta trofeoa jaso zituen eta "oso eskertuta eta kontentua" zegoela adierazi zuen. Orduan azaldu zuenez, 14 aldiz aritu zen "Cross de los Carrozas" proban eta horietatik 12 irabazi zituen. Proba horretan ere aurtun faltan botako dute korrikalari unanuarra, beti irribarretsua.

Berarendako, bizio bat zen korrika egitea. "Korrika egiteak erlaxatu egiten nau, bizio bat da. Osasuna dudana bitartean korri-

kan aritzea da nire erronka" zioen. Eta baita bete ere.

Omenaldiak eta aitortzak

Bere ibilbide luzean makina bat aitortza jaso ditu korrikalari unanuarra. Tartean, 2015-2016ko Sakanako Kirolari Onena izendatu zuen Sakanako Mankomunitateak 35 urtetik gorako gizonezkoen artean. Bestalde, 2017ko Ergoienako Tritoiena lasterketan ere omendua izan zen Mercero, eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Kirolaren 2017ko sariketetan aipamen berezia jaso zuen unanuarra, Uxue Barkos presidentea buru zela. Bere bizitasunagatik eta bere kirol ibilbide luzeagatik egin zioten aitortza unanuarri. "78 urterekin atletismo probetan parte hartzen segitzen du, emaitza garrantzitsuak lortuz, eta hainbat kirol proben antolakuntzan ere lan handia egiten du" nabarmendu zuen Barkosek, orduan.

Bera despeditzeko hileta elizkizunak ostiralean izan ziren, Unanun. Sakanako lasterketa eta krosetan faltan botako dugu Joxemari Mercero eta bere irribarrea.



Igor Arrietak irabazi zuen asteazkeneko Lacturale lasterketa eta Iker Mintegi hirugarrena izan zen. UTZITAKOA

Arrietaren, Alberdiren eta Mintegiren podiumak

TXIRRINDULARITZA Igor Arrietak maiatzaren 1eko Lacturale Saria irabazi zuen, Aitor Alberdi bigarrena izan zen Agurain eta Amurrion eta hirugarrena Lizarran eta Iker Mintegi bigarrena sailkatu zen Lizarran eta hirugarrena Lacturale Sarian

Junior mailako tropelak makina bat lasterketa izan ditu azken bi asteetan, eta aurreko postuetan egon dira Aralar eta Burunda klub sakandarretako txirrindulariak, Sakana Group-Aralar taldeko Aitor Alberdi arbizuarra bereziki. Hiru podiumetara igoda arbizuarra: bigarrena izan zen Agurain eta Amurrion eta hirugarrena Lizarran. Horretaz gain, bere taldekide Igor Arrietak asteazkenean Etxeberri eta Golderazko gainaren artean jokatu-tako Lacturale saria irabazi zuen eta Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi altsasuarra bigarrena izan zen Lizarran eta hirugarrena Lacturale Sarian.

Alberdiren hiru podiumak eta Iker Mintegirenak

Ekainaren 20an juniorren XXII. Meoqui Memoriala jokatu zen Lizarran (73 km). Hiru txirrindulari iritsi ziren batera helmugara, eta esprintean Lizarte Ermitagaña taldeko Diego Uriarte gailendu zen, Iker Mintegi altsasuarraren eta Aitor Alberdi arbizuarraren aurretik. Lehen 10 postuak aintzat hartuta, Quesos Albeniz taldeko Unai Aznar seigarrena izan zen eta Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta uhartearra zortzigarrena. Mendiko sailkapena Aitor Alberdik lortu zuen.

Hurrengo egunean, Agurainen, XLV. Sallurtegi Saria jokatu zu-

ten juniorrek (79 km). Kasu honetan ere taldetxo bat iritsi zen batera helmugara, laukote bat, eta esprintean Lizarte Ermitagaña taldeko Mikel Retegik irabazi zuen (2:00:40). Aitor Alberdi bezperan Lizarran bigarrena izan ondoren, Agurainen bigarrena sailkatu zen. Lehen 20 postuak kontuan hartuta, Quesos Albenizko Iker Mintegi 13.a eta bere taldekide Unai Aznar 14.a izan ziren, 3 segundo eta 23 segundora, eta Igor Arrieta 17.a sartu zen, 1:42ra.

Larunbatean, apirilaren 27an juniorren tropela Araban bildu zen, IV. Amurrioko Sari Nagusian aritzeko (95 km). Lasterketa Euskal Herriko Torneorako bali-

garria zen 3. proba zen. Lasterketa nahasian, tropel nagusia batera iritsi zen helmugara eta esprintean Ulma taldeko Ander Blazquez gailendu zitzaion Aitor Alberdi arbizuarrari (2:20:42). Lehen 20 postuak kontuan hartuta, Unai Aznar 17.a sailkatu zen eta bere taldekide Iker Mintegi altsasuarrak ere lasterketa ona egin zuen, Mendiko sailkapena irabazi baitzuen.

Arrieta ikusgarri Etxeberrin

Asteazkenean juniorren Lacturale Saria jokatu zen Etxeberrin. Lasterketa oso mugitua izan zen, oso azkarra eta txirrindulariak banaka iritsi ziren helmugara. Igor Arrieta uhartearrak sekulako erakustaldia egin zuen eta merezitako garaipena lortu zuen (1:45:25), Lizarte Ermitagaña taldeko Pablo Castrillori 14 segundo eta Iker Mintegi altsasuarrari 34 segundo aterata. Irabazteaz gain, mendiko sailkapena eta tartekako helmugan sailkapena irabazi zituen Uhartea Arakilgo txirrindulariak.

Lehen 20 postuetan, Aitor Alberdi seigarrena sartu zen, 5:00 minutura, Lizarten dabilen Jon Gil lakuntzerra 8.a, 5:11ra, Unai Aznar 9.a, 5:17ra, eta Unai Aznar 9.a, 5:17ra. Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Mikel Arretxe (Beola) 26.a sartu zen, Diego Gonzalo (Q.Albeniz) 22.a, Mikel Lizasoain (Sakana G.) 37.a eta Unai Villalobos (Q. Albeniz) 56.a.



Alberdik 3 podium egin ditu. UTZITAKOA



Garcia de Eulate Grezian. SAKANA T.T.

Garcia de Eulate bikain Greziako Ironmanean

TRIATLOIA 1.400 partaideren artean 19.a sailkatu zen altsasuarra, bere kategorian 6.a

Greziatik berri oso onak iritsi zaizkigu Sakanara. Apirilaren 14an Ironman 70.3 Greece ironmana jokatu zen Costa Navarinon. Bertan lehiatu zen Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra.

Ironmanean sekulako maila eman zuen Garcia de Eulatek eta 1.400 partaideen artean 19.a iritsi zen helmugara (4:33:43). Bere mailan, 35 eta 39 urte arteko kategorian, 6. postua lortu zuen. Ikusgarria benetan. Primerako lana egiteaz gain, egindako denbora bikain horri esker Nizan ospatuko den Nazioarteko Ironman 70.3 Triatloian aritzeko txartela lortu du, Munduko Txapelketarako hain zuzen.



Garcia de Eulate iaz, Orihuelan. SAKANA T.T.

Kadeteak: Etxeberria 3.a Altsasun eta Uncilla 2.a Araban

TXIRRINDULARITZA Burunda trofeoan Etxeberria hirugarrena izan zen eta Arespaldizan Uncilla bigarrena

Kadeteek apirilaren 21ean XXXII. Burunda Trofeoa izan zuten jokoan Altsasun (51 km). 28 txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen elkarrekin helmugara eta El Proex taldeko Diego Ruiz de Arkate gailendu zen (1:14:21).

Sakana Group-Aralar taldeko Martzel Etxeberria iturmendiarra hirugarrena sailkatu zen eta mendiko txapelketa irabazi zuen.

Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Top-Tenean Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncilla

5.a sailkatu zen, eta bere taldekide Hugo Aznar 9.a. Taldeka etxeko taldea, Quesos Albeniz, izan zen onena.

Uncilla bigarrena Arespaldizan

Larunbatean kadeteek Arabako bidea hartu zuten, Gaztetxoak Torneorako baliagarria zen XXXIV. San Prudencio Saria baitzegoen jokoan Arespaldizan. Lehen urteko kadeteen lasterketan hirukote bat iritsi zen elkarrekin helmugara eta Augar-Laguntasuna taldeko Beñat Garaiar gai-

lendu zen, Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncillaren aurretik. Lehen 20 postuak kontuan hartuta, Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo 19.a sailkatu zen, 27 segundora. 2. urteko kadeteen mailan Bazpi taldeko Beñat Carbayed iritsi zen bakarrik helmugara. Lehen 20 postuak kontuan hartuta, Quesos Albenizko Hugo Aznar 4.a sartu zen, 21 segundora, Martzel Etxeberria 9.a, denbora berean, eta Sakana Group-Aralar taldeko Jon Erdozia 14.a, denbora berean.



Jose Kruz Gurrutxaga eta Bernardo Atxaga irakurketa dramatizatuan.

Atxaga eta Gurrutxaga euskal literatura azaltzen

Bernardo Atxagak itxi zuen Altsasuko liburutegiko Liburuaren Asteko egitaraua

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasun Liburuaren Egunaren inguruan antolatutako programazioaK Bernardo Atxaga izan zuen protagonista pasa den astean. Hura despeditzeko, ostiralean, idazlea bera etorri zen. Jose Kruz Gurrutxaga aktorearekin batera *Martuteneko kartzelan* irakurketa dramatizatu eskaini zuten, Euskaltzaindiaren mendeurrena dela eta Atxagak sortu duena. Haren oinarrian Atxagak berak duela zenbait urte Gipuzkoako kartzelan euskal literatura zaharrari buruz emandako hitzaldia izan zuen oinarri.

Atxagak hitzaldi hartan espektzeko zuzendariarekin eta zenbait presorekin izandako harremana, eta hitzaldian zehar presoan arreta bereganatzeko erabilitako estrategiak kontatu zituen. Baita bere hautuek presoengan zuten eragina ere kontatu zuen. Presoak gorpuzteaz eta ahotsa ematez

Gurrutxaga arduratu zen. Guztia ironia finaz kontatuta. Iortia kultur guneko areto txikia ia bete zuen publikoaren gozagarri izan zen emanaldiaK.

Hala izan zen ostiraleko emanaldian. Herrian izanik Altsasuko auziari eta preso daudenei ezin aipamenik egin gabe pasa. Hala-xe adierazi zuen Atxagak. Idazleak gatzigatu zuenez, “askatasuna galtzea asko da. Ez da pentsatu behar kartzelan bizitza gelditzen dela. Kartzelan bizitza darrai, segi egiten du. Bertan dauden Ek bizitzen jarraitzen dute”. Eta mezu txiki bat emateko Nazim Hikmet poeta turkiarraren olerki bana irakurri zituzten Atxagak eta Joxe Kruzek.

Akaberan, emanaldi guztietan saioa despeditzeko tokiko olerkari baten poema aukeratzen dute errezitatuz. Joxe Kruzek aretoan zen Castillo Suarezren Sabaiak poema errezitatuz despeditu ziren.

Iortiako tailerraren antzezlan mamitsua

Altsasuko antzerki tailerrak arrakasta izan zuen larunbateko emanaldian. '¡Pero que me estas contando!' antzezlan egin zuten, tailerreko kideek sortutako lana. Pili Bueno Martin tailerraren kide izan zena omendu zuten ere

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Transmititu zuten poza. Kezka. Transmititu zuten, amorrua. Haserrea. Transmititu zuten alaitasuna, bizinahia. Dantzatu zuten. Negar egin, barre egin, afaria prestatu, irrati emanaldiak egin, elkarrekin hitz egin, amorratu, haserretu, duintasuna aurkitu, eskrupulu eza azaldu... Hori guztia eta gehiago lortu zuten Iortiako antzerki tailerreko zortzikoteak *¡Pero que me estas contando!* antzezlanean aurreko larunbatean egindako mustutzean.

Antzezlan

Istoria kontatzeko eszena bi espazioetan banatu zuten. Aurrenekoan familia baten bizitza islatu zuten. Ateko partean, altuago, irrati esatariak, bekaduna eta nagusia aritu ziren, emanaldiak eskaintzen eta haiek prestatzen. Uhin bidezko loturak espazio batetik bestera jauzi egiteko aukera eman zien, horretarako argiztapenarekin jotuz. Familiaren bizitza guztiz aldatuko da alabari sexu eraso egin diotenean. Irratiek, komertzialek eta libreak, horren aurrean hartzen duten jarrera islatu zen segituan.

Eder Goikoetxea, Jone Pelaez, Juani Santano, Rober Rodriguez,



Iortiako antzerki tailerraren aktoreek ikusleen txaloak jaso zituzten amaieran.

Isabel Borrega, Bea Ganuza, Sergio Molero eta Alberto Alvaro aktoreek txalo zaparrada jaso zuten akaberan. Birjiñe Albira zuzendaria ere agertokira atera zen eta aktoreen ondoan zegoela nabarmendu zuen antzezlan soilik 50 orduan prestatu zela eta lan handia egin zutela aktoreek. Txaloak areagotu egin ziren.

Omenaldia

Emanaldiaren hasiera ere hunkigarria izan zen, antzerki taldeko kide izandako Santi

Goikoetxea agertu zen eszenan. Aurrean bideo kamera bat zuela gerora antzezlanean erabiliko zen sofán eseri eta kamerari hizketan hasi zitzaion: “nahi duzunean, Pili”. Alegiazko baizkoa jaso ondoren, gidoi bat irakurtzen hasi zen, hunkituta.

Gidoi hura Pilirekin grabatu nahi lukeela jakinarazi zuen Goikoetxeak eszena utzi aurretik. Antzerki tailerrak horrela omen-du nahi izan zuen aurten hil den eta tailerreko kide zen Pilar Bueno Martin.

Irurtzungo festak iragarriko dituen irudiaren bila

Irurtzungo udalak uztailleko festetako XXIX. Herri kartel lehiaketa martxan jarri du

IRURTZUN

Irurtzungo festak uztailaren 17tik 21era ospatuko dira, eta dagoneko prestakizunekin hasi dira. Hortaz, festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko prozesua martxan jarri dute. Irurtzunda-

rrek maiatzaren 31ra arte aukera dute proposamenak aurkezteko.

Kartel lehiaketara aurkezten diren lanek Irurtzungo festei lotutako gai bat irudikatu behar dute. Gainera, *Irurtzungo jaiak*.

Uztailak 17-21 Julio 2019. Fiestas de Irurtzun testua derrigorrean agertu behar da. Hiru kategoria bereizten dira: 5 eta 10 urte bitarteko haurrak, 11 eta 14 urte bitartekoak eta helduen modalitatean 15 urte gorakoak. 2019ko urtarrilaren 1ean Irurtzunen erroldatutako orok parte har dezake.

Proposamenen neurriak kategorien arabera aldatzen dira, beraz, helduen kategoriako parte hartzaileek 42x60 cm-ko (zabalera x luzera) irudia aurkeztu



2017ko Irurtzungo festak. ARTXIBOA

behar dute kartulina edo euskarri gogor batean. Haurren kategorietako lanek, aldiz, 29,5x42 cm-ko (A3) neurriak izan behar dituzte eta kartulina batean aurkeztu behar dira.

Lanak Irurtzungo udaletxean aurkeztu behar dira maiatzaren 31a baino lehen. Epaimahaia Irurtzungo jai batzordeko kideek osatuko dute eta ekainean jakinaraziko da kartel irabazlea. Lehenengo modalitatearen saria 75 eurokoa izango da, bigarrenean 100 eta hirugarrenean 400 euro.



Artea Oinez Kondestable jauregian izango da maiatzaren 12ra arte. NAFARROA OINEZ

Artea Oinez erakusketan artista sakandarrak

Tuterako Argia ikastolak antolatuko du aurten Nafarroa Oinez festa. Ekimena urrian izango da, baina, aurretik, urtero bezala, hainbat ekimen egingo dituzte; besteak beste, Artea Oinez. Iruñeko Kondestable jauregian erakusketa ikus daiteke

SAKANA

Artea Oinez erakusketa Iruñeko Kondestablearen jauregian ikusgai dago maiatzaren 12ra arte. Hego Euskal Herriko hirurogeita hamar artistaren obrak jaso ditu Argia ikastolak, aurtengo Nafarroa Oinezko antolatzaileak. Tartean artista sakandarren lanak daude: Jose Ramon Andaren, Dora Salazarren, Helena Santanoren eta Txuspo Poyoren artelanak ikus daitezke erakusketan.

Eskultura, pintura, argazkigintza, teknika mistoak, bideoak eta diziplina askotariko lanak ikus daitezke urtero Nafarroa Oinezaren harira antolatzen den arte erakusketan. Aurten *Izan argi* lelopean ospatuko da ikastolen festa, eta Argia ikastolak 70 artista bildu ditu. Erakusketaren helburua arte plastikoen bidez Nafarroako euskarazko hezkuntza laguntzea, hau da, artea eta euskara bultzatzea da. Gainera, aurten bost ardatz jarraitu dituzte: gorputza, emozioak, eremu soziala, burua eta identitatea.

Erakusketaren ardatzak kontuan hartuta, hainbat artistek

Artea Oinez erakusketarako propio sortutako lanak aurkeztu dituzte, beste batzuek, aurretik egindako lanak erakutsi dituzte. Dena delako, Kondestable jauregiko lehenengo solairuan artelan guztiak daude ikusgai, tartean, lau sakandarrenak.

Dora Salazar artista altsasuarra izan zen iazko Artea Oinezean, etxean. Aurten haren lana ikus daiteke ere: *Echar ramas* deitzen da brontzez egindako eskultura. 2018. urteko lan bat da eta zuhaitz adarrak ateratzen zaioen gorputz bat adierazten du.

Jose Ramon Andaren brontzeko eskultura bat ere dago Artea Oinez erakusketan. 2016. urteko pieza bat da eta ez du izenbururik. Brontzeko pieza luze bat da, ertz batean zulo bat duena, ate bat bailiran.

Helena Santanoren lana iazko erakusketan egon zen. Aurten errepikatuko du *Los grises de mi paisaje* lanarekin. 2011. urteko lana da eta oihal gaineko akriliko bat da.

Txuspo Poyo artista altsasuarren teknika mistoarekin egindako lana ikus daiteke ere Artea Oinez.

Urteko kontzertua

Maiatzaren 5ean, igandean, 17:00etan ikasturte amaierako kontzertua egingen dute Altsasuko Dantza eta Musika eskolako ikasleek, lortia zabalgunean. Eguraldi txarra eginez gero frontoian egingen da. Musikari eta dantzari gazteek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute elkarrekin edo taldeka. Hurrengo emanaldia *Sorkuntza* ikuskizuna izanen da.



ARTXIBOA

Hautaketa hobereana

Golden Quarter a capela talde ospetsuak *Gran seleccion* ikuskizuna egingen du bihar, larunbata, lortia kultur gunean, 19:30ean. 30 urteko ibilbidea egin du taldeak eta ikuskizunean abesti ezagunenak bildu ditu, besteak beste: Maria de la O, Only You edo El Menu. Gainera, lan berriak aurkeztuko dituzte ikuskizunean ere.



GOLDEN QUARTER



BAZTERRETIK
RICARDO ARETA
URRESTARATZU

Udako jaialdiak

Udako jaialdi eskaintza zabala eta oso antzekoa topatuko dugu. Ia kartel bera errepikatzen da sistematikoki. Jarraitzaile edo "fan" fenomeno ere globalizatu dago. Mundu guztiak musika bera entzuten du eta "trending topic" den edozein ikuskizunerako sarrerak lortzeagatik borrokatzen da, gustukoa izan ala ez. Sakonago bilatzen badugu, musika ona ekartzeaz gain, beste kultura batzuetara hurbiltzen gaituzten eskaintzak aurkitzen ditugu.

PIRINEOS SUR – FESTIVAL INTERNACIONAL DE LAS CULTURAS. Sallent de Gallego – Lanuza (Huesca)

Bere ezaugarri nagusia, zalantzarik gabe, aniztasuna da. Oholtza gainetik Los Tigres del Norte, Orishas, Paco de Lucia, The Wailers, Ruben Blades eta era askotako artisten abar luze bat. Egunean zehar, kale animazioa, azoka, kartela osatzen duten artisten herrialdeetako

kulturarekin erlazionatutako tailerrak eta ekimenaren protagonistetako bat den lakuko auditorioa baino txikiagoa den beste eszenatoki bat izaten da. Eszenatoki handia lakuaren barruan kokatzen da eta auditorio natural ikusgarria osatzen da. Eta honetaz gain, Tenako haranak aisialdi aktiborako ekintza ugari eskaintzen ditu mendia erdian.

HUERCASA COUNTRY FESTIVAL. Riaza (Segovia)
Sustrai amerikarra duen musikan zentratzen da eta garai eta mota guztiak hartzen ditu. Egun country musikaren lehen mailan aritzen diren taldeak hurbiltzen dizkigu, musika honek mendebaldeko pelikulak gogora ekartzen dizkigun arren, inoiz baino biziago dagoen musika mota baita.

Bizitza osasungarria eta landa eremuaren inguruko tailerrak izaten dira etxeko txikientzako, country musika baino gehiago da eta, bizimodu bat da.

Jaialdia igandean bukatzen da herriko plazan Country Line Dance kontzentrazio batekin, asteburuan zehar, tailerren bitartez ikasi daitekeena. Ipar

Amerikako kultura hobeto ezagutzeko eta haurrekin joateko aukera on bat da, familientzako prestaturia baitago.

HONDARRIBIA BLUES FESTIVAL. Hondarribia (Gipuzkoa)

Sustrai amerikarra duen musika mota bati buruz hitz egingen dugu berriz, baina Hondarribia bi kontinenteen arteko topaketa da. Chicagotik Norvegiara bidaiatu dezakegu Kataluniatik igaroz. Bartzelonako Blues Societat presente egon baita beti Hondarribian, bluesak mugak gainditu eta toki eta garaietara egokitzen jakin duenaren adierazle.

Egunean zehar Hondarribiko paisaiako toki esanguratsuetan kokatzen diren eszenatokiak izaten dira eta arratsaldeko lehen orduetatik aurrera, kaleak musikaz betetzen dira.

Aurretik aipatu jaialdietan baino gutxiago, baina haurrentzako ekintzak ere izaten dira.

Eta nola ez, preziorik ez duen ingurune eta gastronomiarekin kontaktatzen dugu. Jaialdiak berak ere preziorik ez du, kontzertu guztiak doakoak baitira.

Teknologia berriak antzeztokian

Logela Multimedia konpainiak teknologia berriak arte eszenikoen diziplinekin uztartzen ditu. Bihar, larunbata, 17:30ean, konpainiak 'Drag-E. Uraren bila' ikuskizuna egingen du Etxarri Aranazko kultur etxean

ETXARRI ARANATZ

Antzerkia, dantza, musika, robotika, bideoa eta interakzioa uztartzen ditu Logela Multimedia konpainiak *Drag-e. Uraren bila* antzezlanean. "Aktoreek irudiekin harremana dute. Aktoreen ekintzak eta agertokiko pantailetan agertzen diren irudien artean elkarrizketa bat dago". Pantailak eta robotak dauden arren, protagonismoa benetako aktoreek eta dantzariak dutela azaldu du Ander Garaizabal Logela Multimediako kideak. Bihar, larunbata, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean antzezlana multimedia ikusteko aukera izanen da.

Logela Multimedia ibilbide luzeko konpainia bat da. Hemezortzi urte daramate eszenan eta dagoeneko 20 ikuskizun sortu dituzte. Hiru familiarako publikoarentzako, *Drag-E. Uraren bila* bihar Etxarri Aranatzaren ikusteko aukera izanen den antzezlana, esaterako. Konpainiaren "kezka" ekoizpen digitalak agertokira eramatea zen, eta konpainia helburu horrekin sortu zela azaldu du Garaizabalek. "Antzezlanean teknologia, dantzariak, aktoreak eta musikariak uztartzeko gogo horrek eraman gintuen Logela Multimedia sortzera". Beraz, antzezlana multimedia kontzeptu



'Drag-e. Uraren bila' antzezlanean robotak daude. LOGELA MULT.

berritzailea dirudien arren, haien artean ez da "horren berritzailea".

Drag-E. Uraren bila antzezlanean bi robot agertzen dira. Bat aurrera eta atzera mugitzen da eta bestea estatikoa da. 2800. urtea irudikatzen dute, eta Lur planetan izaki bat bizi da. Landare bat ere bizi omen da planetan. Lurrera bizitza ekartzea izanen da lau pertsonaien erronka. Wall-E animaziozko pelikularen lehenengo minutuetan inspiratu dira antzezlana sortzeko, "ingurugiro" horretatik.

"Apokaliptikoa dirudien arren, alaitasunetik eta poztasunetik eginda dago". 4 urtetik gorako haurrendako gomendatuta dago, baina "keinu batzuetan" gurasoei gustatuko zaiela ere azaldu du Garaizabalek: "oreka mantentzen saiatzen gara".

"Ondo pasatzeko antzezlana da. Balore batzuk ere mahaigainean jartzen ditugu: naturarekiko maitasuna, baliabideak agortzen direla irakastea... lan pedagogikoa badago, baina bereziki familian ongi pasatzeko eta disfrutatzeke ikuskizun bat da".

Dantzaren eguna ospatzeko dantza kalera aterako dute

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako ikasleek dantza emanaldia egingen dute gaur, 20:00etan, lortia parean

ALTSASU

1982. urtean izendatu zuen Unesco apirilaren 29a Dantzaren Nazioarteko Eguna. Jean-Georges Novere dantzari berritzailearen eta ballet modernoaren sortzailearen jaiotzearen eguna

aukeratu zuten dantzaren eguna ospatzeko. Orduetik, dantza artearen parte-hartzea eta trebakuntza sustatzeko eguna bihurtu da apirilaren 29a. Dantzariak kalera ateratzeko helburu hori betetzeko.

Aurten apirilaren 29a astelehena zenez, Irantzu Gonzalez dantza eskolako ikasleak dantzarien eguna ostiralean ospatzea erabaki zuten, beraz, bihar aterako dute dantza kalera. Iortia zabalgunean izanen da dantza emanaldia, 20:00etan. Eskolako lau talde ariko dira, Milakolore elkartekoak tartean.

Dantzaren egunaren harira arte honen inguruko mezu bat argitaratzen dute eta aurten Karimar Manseur dantzariarena izan da: "dantza sendagarria da".



'Cabaret paranormal' antzezlanean protagonista. UTZITAKOIA

Meta-antzerkia paranormala Irurtzango kultur etxean

'Cabaret paranormal' antzezlana izanen da igandean, maiatzaren 5ean, 19:30ean, Irurtzunen

IRURTZUN

Bizidunen eta hildakoen munduen artean mugitzen da *Cabaret paranormal* antzezlana. Violette vedette bat da eta aktore eta izar hildakoen izpiritu-kasuak ditu, izan ere, garai bateko izar eta aktore zaharrek bizitzaren onurak bizi nahi dituzte berriz ere eta Violetten aukera ezin hobea ikusten dute. Etzi, igandean, irekiko da bizidunen eta hildakoen munduen arteko atea Irurtzango kultur etxean, 19:30ean. *Cabaret paranormal* antzezlanean kideek azaldu dutenez, pertsona ausartendako da.

Cabaret paranormal ikuskizuna Arantxa Vela Buendia eta Estefania de Paz Asin elkartu zirenean sortu zen. Haien artean "konexio paranormala" sortu zela diote, beraz, elkarrekin zerbait egin behar zutela erabaki zuten. Vela antzezlanean sortzailea eta zuzendaria da eta De Paz izpirituak hartzen dituen aktorea.

Denetariko ikuskizun bat da, freskoa, musikala, azkarra eta umore inteligentearrekin eta beltzarekin. Sorpresak egongo direla diote ere *Cabaret paranormal*-eko egileek.

MAIATZAK 4 LARUNBATA, 19:30

AZKENEKO SARRERAK SALGAI, ESKURATU ZUREA!

GOLDEN APPLE QUARTET

Iortia

"Behar da kalitatea eta bereizgarriren bat"

Juan Jose Aldasoro Sarasuari eta Jose Galan Notariori jubilatzeke garaia heldu zaie. Larunbatean itxiko ditu ateak Aldasoro harategiak. Azken egunotan apartekoa mostradorearen alde batean eta bestean pilatzen diren sentimenduak.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Ederragoa zen zuegana etortzea sariren bat irabazi zenutelako!

Jose. Gu, sariekin edo saririk gabe, eskertuta gaude.

Juan Jose. Bizitzan pauso hau eman beharra dago.

J. Ongi egindako lanari emandako sariak dira.

JJ. Nafarroako Gobernuaren 2017koa harategi honen ibilbideari emandako saria da.

2 Saltzen duzuen etxeko produktuak direlako, ezta?

J. Dena. Kalitatezko produktuekin eginak.

JJ. Eskualdean erositako animaliekin egindakoak.

3 1956tik zabalik egon da harategia. Beti toki berean?

JJ. Bai. Garagarrilean 51 urte eginen nituzke hemen. Josek martxoan 40 urte egin zituen.

4 N-1 paretik pasatzen zen.

JJ. Orduko ondoko komertzioek, Bengoetxea eta Villareal, udan, bi egunero olio kamioi bat ekartzen zuten. Nire gurasoak ziren udan, haiek ondutako urdaiazpikoez aparte, Iruñetik 100 bat ekartzen zituzten. Pam-



Jose Galan Notario eta Juan Jose Aldasoro Sarasua.

plona txorizoa, kopuru izugarriak. Frantziara joaten zirenek eramaten zuten.

5 Nongoa zen generoa?

JJ. Altsasuko hiltegiaren hiltzen gauen. Gero Etxarriko zinema

azpian zegoen hiltegiara pasa ginen. Han, kide guztien bilera askoren ondoren, sortu zen Etxarriko hiltegi berria.

J. Etxarriko hiltegia 17 harakinen artean egin genuen, kooperatiba da. Guk eskualdeko produktuen

alde egin dugu. Kalitatezkoak dira, eta gainontzekoei jaten ematen diozu.

JJ. Dendari txiki batek kalitateaz aparte bereizgarriren bat badu hobe.

6 Jose, zaila egin zitzazun harategiko martxa hartzea?

J. Ez nekien ezer. Aitagarrebak asko irakatsi zidan, pazientzia handia izan zuen; honek ez zuelako batere. Eta bizia izatea! 23 urterekin etorri nintzen hona.

7 41 urte elkarrekin lan egiten...

J. Nire bizitza izan da etxea, familia eta lana. Ongi eraman dugu. Seme-alabek ere.

JJ. Berak nik baina opor gutxi batzuk gehiago izan ditu. Gutxi. Ni gurasoekin hasi nintzenetik (15 urte zituen) ezkontzako 19 egunak eta soldadutzako 14 hilabeteak izan nituen opor.

8 N-1eko garaitik hona zertan aldatu dira harategiak?

J. Produktuekin gure burua berasmatu behar izan genuen. Hori izan zen aldaketa. Asmatu genuen eta gehiagora jo genuen. **JJ.** Gurasoengatik gu Gipuzkoan oso ezagunak gara. N-1 errepidea pasatzean jendea Urbasara igotzen zen eta izugarri ezagutzen gintuen. Gipuzkoatik jende asko etortzen zaigu.

J. Bezero ona izan da bai X diru gastatu duena bai 100 gramo Pamplona txorizo erosi dituen. Sekula ez dugu bereizketarik egin.

9 Altsasuko Dendari Elkarteke kide ere bazarete. Zergatik?

JJ. Kide izateak ez du kentzen. Nor bere alde ibilita ez da ezer lortzen. Elkartuta gutxi lortzen

da. Gutxi horri nik balio handia eman diot. Udalak gauza askotariko kontuan izan gaitu. Gaur egungo ohitura da kolektibo guztiek euren diru eske etortzea.

J. Denda txikiei asko estutzen zaie. Gero jende guztiak ez du bueltatzen. Guk ez dugu jendearekin kezarik.

JJ. Elkarrekin lan handia egiten du. Elkarrekin kide izan da inork ez du gehiago salduko. Hori norberaren zeregina da. Baina elkar babestea oso garrantzitsua da.

10 Kalea txukun utzi behar dutenean itxiko duzue.

JJ. Iraillaz geroztik saiatu gara harategiaren lekukoa pasatzen.

J. Gure belaunaldia bukatzean dendak itxiko dira eta herria oso hilda geldituko da. Denbora gutxian lau harategi itxi dira.

JJ. Bizi guztiko bezeroak, 80 urtekoak, galduta daudenak: nora goaz orain?

11 Zein plan duzue orain?

JJ. Lehenik jubilatzea. Edo sekula egin gabekoak egitea. Oporretan joan beharko gara, ez? **J.** Ez gara sekula joan. Baina ez gara ozpinduta bizi izan. Moldatu gara.

JJ. Makina gehienak saldu ditugu eta haiek eman beharko ditugu. Gero lokala hustu beharra dugu, turismoko apartamentu bihurtuko baita. Seme-alabek kudeatuko dute.

J. Ez genuen bajera graziarik gabe utzi nahi, utzita. Horrek herria oraindik gehiago hondatzen du.

JJ. Gure etxera etorri diren guztiei eskerrak ematea besterik ez. Zortea opa diegu.

Osorik: www.guaixe.eus.

BAZKIDE SARITUAK

- Mila Berastegi Razkin (Arbizu)
- Ruben Goñi Urroz (Etxeberri Arakil)
- M^aLourdes Aguirre Mauleon (Etxarri Aranatz)
- Adelaida Kintana Lopez de Goikoetxea (Iruñea)

MARTXOKO SARIAK:

1. SARIA:
 EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA

eureka!
 zientzia museoa
 kutxa FUNDAZIOA

Ekain berri

erein
 argitaletxea

CAMPING
 ARTAZA

lacturale

gaztezulo